

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**ESKOLA-BIZIKIDETZA ETA GELAKO GIROAREN
DIAGNOSTIKOA 5. ETA 6. MAILAN
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Saez Abanzabalegi, Jone.

ZUZENDARIA: Goñi Palacios, Eider.

2020

ESKOLA-BIZIKIDETZA ETA GELAKO GIROAREN DIAGNOSTIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILAN

Jone Saez Abanzabalegi
UPV/EHU

LABURPENA

Elkarbizitza pertsonen arteko harremanen oinarri eta aspektu garrantzitsuenetariko bat izanik, eskolan eta orokorrean hezkuntza arloan bizikidetza landu eta sustatzearen garrantzia goraiatu da lan honetan. Gelako giroaren inguruko diagnostiko bat egiten da Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako haurrekin. Honen helburua, Eibarren dagoen J. A. Mogel Ikastolako ikasleen bizikidetza eta harremanak aztertzea da, bertan egon daitezkeen arazo posibleei konponbide bat emateko, bai gelako bai ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko helburuarekin. Horretarako ikaslearen eta irakaslearen ikuspuntuak hartzen dira kontuan: ikaslearen ikuspuntua aztertzeko 8 itemetako galdetegi bat eta soziograma osatzea xede duten beste 3 galdera egin dira; irakaslearen ikuspuntua ikertzeko, galdera laburrez eta test bidezko galderez osatutako galdetegia izan da erabilia. Erantzunak bildu ondoren, emaitzak azaleratzen dira bi mailatako erantzunak alderatuz eta irakasle zein ikasleen ikuspuntuak erkatuz. Emaitzen analisiaren bitartez ondorioztatzen da, nahiz eta bi mailatan hobetzeko alderdiak egon, 5. mailako gelako giroa okerragoa dela. Hau horrela, gelako giroa hobetzeko proposamenak luzatzen dira.

Hitz gakoak: Bizikidetza, diagnostikoa, gelako giroa, galdetegia, Gorputz Hezkuntza

RESUMEN

Siendo la convivencia uno de los pilares y aspectos más importantes de las relaciones interpersonales, en este trabajo se resalta la importancia de trabajar y promover la convivencia en la escuela y en el ámbito educativo en general. Se realiza un diagnóstico sobre el ambiente del aula con niños y niñas de 5º y 6º de Primaria. El objetivo es, analizar la convivencia y las relaciones de los alumnos de la Ikastola J. A. Mogel de Eibar, con el fin de dar una solución a los posibles problemas, tanto a nivel de aula, como de centro. Para ello, se han tenido en cuenta los puntos de vista del alumnado y del docente; se ha realizado un cuestionario de 8 ítems para analizar el punto de vista del alumno o alumna y otras 3 preguntas dirigidas a la elaboración de diferentes sociogramas; para investigar el punto de vista del docente se ha utilizado un cuestionario de preguntas breves y de test. Una vez recogidas las respuestas, se muestran los resultados comparando las mismas a dos niveles y comparando los puntos de vista tanto del profesorado como del alumnado. A través del análisis de los datos se ha llegado a la conclusión de que, aunque hay aspectos de mejora en ambos niveles, el clima de aula de 5º es peor. Así, se han realizado propuestas para mejorar el clima de aula.

Palabras clave: Convivencia, diagnóstico, clima de aula, cuestionario, Educación Física

ABSTRACT

Since coexistence is one of the most important pillars and aspects of interpersonal relations, this paper highlights the importance of working and promoting coexistence in the school and in the educational environment in general. A diagnosis is made of the classroom environment with boys and girls in the 5th and 6th grades of primary school. The objective is to analyse coexistence and relationships between students at the J. A. Mogel Ikastola in Eibar, in order to provide a solution to possible problems, both at classroom and school level. To this end, the points of view of the students and the teacher have been taken into account; a questionnaire of 8 items has been made to analyse the point of view of the student and another 3 questions aimed at the elaboration of different sociograms; to investigate the point of view of the teacher a questionnaire of short questions and tests has been used. Once the answers have been collected, the results are shown by comparing them at two levels and comparing the points of view of both teachers and students. Through the analysis of the data it has been concluded that, although there are aspects of improvement in both levels, the atmosphere in the 5th grade classroom is worse. Thus, proposals have been made to improve the classroom environment.

Key words: Coexistence, diagnosis, classroom environment, questionnaire, Physical Education

1. SARRERA	5
2. JUSTIFIKAZIOA.....	5
3. MARKO TEORIKOA	6
3.1. Eskola-bizikidetzaren garrantzia	7
3.1.1. Bakearen kultura.....	8
3.1.2. Gatazka	9
3.2. Giroa.....	11
3.2.1. Eskola giroaren domeinuak.....	12
3.2.1. Gela giroa eraginkorragoa sortzeko baldintzak	15
3.2.1. Gelako orientazioa	16
3.3. Gorputz Hezkuntzatik bizikidetza eta harremanak hobetzen	17
4. LANAREN HELBURUAK	20
4.1. Helburu orokorra	20
4.2. Helburu espezifikoak.....	20
5. METODOA.....	20
5.1. Parte-hartzaileak.....	20
5.2. Tresnak.....	21
5.3. Prozedura	22
6. EMAITZAK.....	23
6.1. Ikaslearen ikuspuntua	23
6.2. Irakaslearen ikuspuntua.....	29
6.3. Gelako giro on baten oinarrizko printzipioen proposamena.....	33
7. ONDORIOAK.....	33
7.1. Gelako giroa hobetzeko proposamenak.....	37
8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	38
9. BIBLIOGRAFIA	40
10. Eranskinak	44
1. Eranskina. Ikasleen galdetegia	44
2. Eranskina. Irakaslearen galdetegia.....	46
3. Eranskina. Ikaslearen galdetegiaren datu kuantitatiboak	47
4. Eranskina. Soziogramak.....	48

1. SARRERA

Lan honetan eskola eta gelako bizikidetzaren inguruan jardungo da, bizikidetzaren garrantzia goraipatu eta gelako giroan zentratuz. Horretarako, marko teorikoa garatuko da gaiaren kokapen bat egiteko asmoz.

Gorputz Hezkuntza bizikidetzeta eta harremanak hobetzeko ikasgai aproposa dela arrazoitu ondoren, lanaren helburu orokorra eta espezifikoak zehaztuko dira. Segidan, metodoaren barruan lanaren nondik norakoak azalduko dira parte-hartzaileak, tresnak eta prozedura argituz.

Jarraian, gelako giroaren diagnostikoaren emaitzak azaleratu eta aurkeztuko dira taula, grafiko eta soziograma desberdinen bitartez. Ateratako emaitza eta datuak oinarri hartuta, datuak aztertu eta interpretatu ondoren, ondorioak plazaratuko dira hurrengo atalean; baita gelako giro eta egoera hobetzeko proposamen batzuk egin ere.

Azkenik, lanaren mugak identifikatuko dira eta hobekuntza proposamenak egingo dira.

2. JUSTIFIKAZIOA

Bizikidetzeta, orokorrean, gaur egungo gizartean pil-pilean dagoen gaietariko bat da. Aditu askok bizitzeko ezinbestekoa den baldintzatzat hartzen dute, baita nik ere. Pertsonen arteko harreman egokia dagoen inguru batean bizitzea errazagoa da, eta honek, gizakiongan eragin positiboa ekartzen duelakoan nago; eta honen eragina, onura psikologikoen eta baita fisikoen ere antzeman daiteke.

Elkarrekin bizitzea beste gizabanakoekin elkar eragiteko ekintza da; enpatia eta ulermena bezalako balioak partekatuz, espazio berean bizi diren gizabanakoen multzoan armonia eta bakea sustatzen dituztenak. Elkarrekintza honetan funtsezkoa da errespetua, elkertasuna, konpromisoa, enpatia, komunikazioa (elkarrizketa) bezalako balio eta arauak ondo barneratuta izatea. Balio hauek lantzeko momenturik edo etaparik egokiena haurtzarora da, informazioa jaso eta gure egiteko erraztasun gehiago baitugu. Haurtzaroko etapa honetan balio hauek finkatzen ez badira etorkizun batean zailagoa izango da balio hauek aldatzea.

Gizartea hainbat komunitate desberdinetan banatzen da. Haurtzaroen gehien gailentzen den komunitatea eskola komunitatea da; hortaz, balio hauek barneratzeko lanketa eskola giroan egitea komenigarria litzateke. Bertan, familiak ere bere indar eta pisua daukala kontuan hartu eta ahaztu gabe.

Hezkuntza komunitatea, guraso eta orokorrean familiek, irakasleek, ikasleek eta inguruko hainbat elkarteek (aisialdiko enpresak, eskolaz kanpoko ekitaldiak eramaten dituztenak, gizarte etxeak, besteak beste) osatzen dute. Eskola eta komunitatearen arteko harremana betidanik egon izan da eskoletan; baina, ondo funtziona dezan ezinbestekoa da bien arteko komunikazio eta elkarlana.

Eskola eta komunitatearen arteko harremana egokia izan dadin komunikazioa eta informazio trukaketa ona egotea oinarrizkoa da. Horretarako, lehendabizi gelako giro egoki bat egotetik abiatu behar da bizikidetzarako arauak gela eta ikastetxean landuz.

Arestian aipatu bezala, gelako giro egoki bat egotea beharrezkoa iruditzen zait. Hau horrela, gelako giro egoki bat egoteak kideen arteko elkarrekintza eta harremanak errespetuzkoak eta positiboak izatea ahalbidetuko du; enpatia lantzea errazagoa izango da, ikaskuntza prozesuan hobekuntzak areagotuko ditu eta arazo egoeren aurrean irtenbideak bilatzea errazagoa izango da.

Gizarte heterogeneo batean bizi gara; izaki bakoitzak bere iritzia, pentsatzeko modua, pertzepzioak eta testuinguru eta bizi estiloa dauka; aniztasuna nagusitzen da, alegia. Aniztasun hori arazo izateari uzteko eta elkar aberasteko baliabide bihurtzeko, hezkuntza estrategia desberdinak (estrategia kooperatiboak, esate baterako) praktikan jartzea komenigarria litzateke. Nire aburuz, guzti honen oinarrian, pertsonen arteko harreman sendo batzuk egotea ezinbestekoa da.

Nire ibilbide akademiko osoan zehar, ikaskuntza prozesua aurrera eramateko, taldean lan egiteko, motibatuta eta gogotsu sentitzeko, eroso sentitzea ezinbestekoa dela aztertu ahal izan dut; eroso, bai taldearekin baita norbere buruarekin ere.

Horregatik, taldeko giroa aztertu eta lanketa bat egitea ezinbestekoa iruditzen zait ikasleek arlo akademikoan zein ikaskuntza prozesuan aurrerapausoak eman ditzaten; baina, are garrantzitsuagoa dena, emozionalki eta psikologikoki eroso sentitu daitezen, osotasunean, ikaslearen garapen integral bat bermatzeko bidean.

3. MARKO TEORIKOA

Elkarbizitza pertsonen arteko harremanen oinarri eta aspektu garrantzitsuenetariko bat litzateke; izan ere, nahiz eta norbanako bakoitza desberdina izan, modu natural batean sortzen dira beraien arteko erlazioak.

Erlazio horietan desadostasunak, gaizki ulertuak eta komunikazio falta egotea eman daitezke, eta horrek pertsonen arteko gatazkak eragin ditzake. Hortaz, esan daiteke gatazka eta elkarbizitza guztiz loturik dauden bi termino direla. Hezkuntza zentroetan pil-pilean dagoen gaiak dira bai gatazkak eta baita gatazka horien konponbiderantz sortu diren hainbat eta hainbat elkarbizitza mintegi eta talde ere. Ikastetxe gehienetan sarritan ematen dira jazarpen eta ikaskideen arteko laidoztatze kasuak. Horrek gai hau irakasleen artean dagoen kezka nagusietako bat izatea dakar (Grande, 2010).

3.1. Eskola-bizikidetzaren garrantzia

Bizikidetzarekin dugun erronka etengabekoa dela diogu. Gizartea ere etengabe moldatzen ari da, eta etengabeko aldaketan nagusitzen den gaur egungo teknologia eta berrikuntzetan murgildutako gizarte honetan, are gehiago. Aldaketa hauek pertsonen jarreretan eta pentsamenduan eragina dute konplexuagoak diren balioak sortuz; balio horiek bizikidetzatik lantzea komenigarria litzateke. Hortaz, bizikidetza eta pertsonen arteko harremanak eskolan landu beharreko atal garrantzitsu bat dira.

Gaur egun, gero eta globalizatuago dagoen gizarte batean bizi gara, plurala eta kulturantza dena. Honek, beraien artean oso desberdinak diren pertsonekin bizitzea eta harremanetan jartzeko aukera eskaintzen digu; hala ere, batzuek uste dute gizarte honetan parte-hartze kritikoa eta aldaketa sozialarekiko konpromisoa urria dela, eta, aldi berean, hainbat balio mediatikok eragina dutela, hala nola, indibidualismoak, arrakastak, botereak, lehiakortasunak edo agresibitateak. Egoera hau kontuan hartuz, esan genezake kontraposizioan dagoen gizarte batean bizi garela, eta sozializazio desorekatu honek, eskola-bizitzan zehar ikasleei ere eragiten die (Martínez eta Bujosa, 2015).

Gizartea gero eta globalizatuagoa, pluralagoa eta kultura anitzekoa izanik, pertsona oso desberdinekin bizitzen eta harremanak izaten ikasteko beharra nabaria da. Horregatik, funtsezkoa izango da gaur egungo testuingurura egokitzeko aukera emango duten gizarte-trebetasunak garatzea. Ondorioz, hezkuntzak aurre egin beharko dion erronka nagusietako bat belaunaldi gazteek, beren hezkuntza-prozesuan zehar, gizartearen garapenerako zein garapen pertsonalerako beharrezkoak diren balioak eta jarrerak eskuratzea izango da (Martínez eta Bujosa, 2014).

Delorsek (1996) bere txostenean, pertsona bakoitzak etorkizunerako beharrezkoak izango zaizkion gaitasun eta ikaskuntzak lortzeko hezkuntzako lau zutabe nagusi aztertzen ditu: ezagutzen jakin, hau da, ulermenerako trebetasunak eskuratu; egiten ikasi, gizarteko hainbat arlotan eragina izateko; elkarrekin bizitzen ikasi, gizarteko jarduera eta ekintza desberdinetan parte hartzeko eta kooperatzeko aukera izan dezan; eta azkenik, izaten jakin, aurretik aipatutako hiru ezaugarriak hartu eta norbanakoarenak egiteko prozesua lortu ahal izateko. Jakintzarako bidean dauden lau zutabe hauek bat egitean dago erronka, beraien artean amankomunean dituzten hainbat puntu baitaude. Baina elkarbizitza eta harremanen alorretik begiraturaz, elkarrekin bizitzen jakitearen ezaugarria da gehien interesatzen zaigun eremua.

Beste hainbat adituez gain, gaur egun oinarrian dagoen Heziberri 2020 legeak ere jasotzen du elkarbizitzaren garrantzia. Heziberri 2020-k bost oinarritzko zehar-konpetentzia bereizten ditu: hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia; ikasteko eta pentsatzeko konpetentzia; norbera izaten ikasteko konpetentzia; ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia eta elkarbizitzarako konpetentzia. Bost

oinarrizko zehar kompetentzia hauek, bakoitzak bere berezitasunak eduki arren, ekintza bat gauzatzeko orduan, denak dira ezinbestekoak, eta horregatik denak dira jorratu beharrekoak.

Lan honetan interesekoa dena, elkarbizitzarako kompetentzia da: “pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz nor bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion oinari.” (Heziberri, 2020, 40.or). Aurreko hau lortzeko helburuarekin hainbat osagaik hartzen dute parte:

Hezkuntza-sistemaren helburuetako bat gaitasun sozial eta gizabidekoak garatzea izanik, elkarbizitzarako gaitasuna alegia, eta XXI. mendeko heziketaren erronka, elkarbizitza, bakea eta giza-eskubideen aldeko heziketaren bidez aurrera egitea izanik, ezinbestekoa da ikastetxe bakoitzeko testuinguruan oinarritutako Bizikidetza Plan bat izatea.

Bizikidetza Planaren eraketak hezkuntza-komunitate osoaren partaidetza eskatzen du (irakasleria, ikasleria, familiak eta irakasleak ez diren langileak). Partaidetzarik egon ezean, nekez izango da eskolako elkarbizitza hobetzeko tresna baliagarri bat. Horrez gain, elkarbizitza positiboa garatzeko hezkuntza-komunitatearen asmoak jaso eta ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoan oinarritzen den dokumentu estrategiko bat izan beharko du ikastetxe bakoitzak. Bizikidetza plana aurrera eraman eta ikastetxean lanketa bat egiteko, gai hau jorratuko duten mintegi bat egon ohi da, bertako partaideak ikastetxeko irakasle zein ikasleak izanik.

Aurretik azaldutako lanketak ikastetxe mailan egiten direnak lirarteke, baina ikastetxeez gain, goragoko maila batean dagoen Nazio Batuen Erakundearen ere jorratzen dira gai hauek. Gorengo maila horretan, gaiaren lanketa egin eta hainbat erabaki hartzeko, Bakearen kultura deritzona legoke.

3.1.1. Bakearen kultura

Bakearen kultura, Nazio Batuen Erakundeko asanblada orokorrean bizikidetzaren, biolentzia ezaren eta bakearen inguruan hartutako hainbat erabakik osatzen dute. Beste erabaki batzuen artean, nabarmenak diren bi erabaki hauek dira Bakearen kultura garrantzitsua dela baieztatzen dutenak eta hortaz, abiapuntutzat jotzen direnak. Alde batetik, 1997ko Azaroaren 20ko erabakia, eta erabaki honetan 2000.urtea Nazioarteko Bakearen Kulturaren urte bezala aldarrikatu zuten. Bestetik, 1998ko Azaroaren 10eko erabakia, 2001-2010 urteen aldia Nazioarteko Bakearen Kultura eta munduko haurrekiko biolentzia ezaren hamarkada bezala aldarrikatzen duena. Azken hau eta ondoren etorri diren beste hainbat erabakiren oinarri gisa, hasieran aipatutako 1997.urteko erabakia hartu zen (Labrador, 2003).

Bakearen kultura balore, jarrera, tradizio, portaera eta bizi estilo jakin batean oinarritzen den fenomeno da. Hauek lirateke zehaztasunez Bakearen kulturaren oinarri edota baldintzak:

- Bizitzarekiko errespetuan, bortizkeriaren amaieran eta hau aurrera eramaten dituzten praktiketan oinarritzen da, heziketa eta elkarrizketaren bitartez.
- Nazio Batuen Gutunean ezarritako printzipioen errespetuan oinarritzen da.
- Giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetuan oinarritzen da.
- Gatazken konponbide baketsuarekiko konpromezua du oinarri.
- Oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat garapen eta ingurunearekiko babeserako beharrak asetzeko ahaleginean oinarritzen da.
- Garapenerako eskubidearen errespetuan, gizon eta emakumeen berdintasunaren errespetuan oinarritzen da.
- Adierazpen askatasunaren eskubidearekiko errespetuan du oinarri.

Bakea eta hiritarren artean dagoen erlazioa ukaezina da eta erlazio horretan hezkuntzak daukan papera ezinbestekoa, garrantzitsua eta erabakigarria da pertsonen jarreretan duen inplikazioagatik eta baita jarrera horien atzean dauden balioetan daukan eraginagatik.

Horregatik, hezkuntzak daukan erronka etengabeko erronka bat da: "*Solo la paz construye los pueblos*" (Labrador, 2003, 167.or.)

3.1.2. Gatazka

Bakearen Kulturaren perspektibatik, gatazka ez da kontzeptu negatibo bat bezala aurkeztu behar, alde batera utzi edo ikusi ez dugun zerbait bezala. Gatazkak oinarritzat hartuz hainbat alderdi positibo atera daitezke eta badira iritzi honen alde dauden hainbat autore.

Vinymata (2005)ren aburuz, gatazka pertsonen arteko erlazioetan oinarria da, motorra. Gizarte hau osatzen duen pertsona oro desberdina da, bizipen desberdinak ditu, baita emozio eta iritzi desberdinak ere. Horrela, desadostasun eta gatazkak ohikoak dira eta horiei aurre eginez lortuko da jarrera aldaketa ematea. Lederach- ek (2000) ere ildo beretik jarraitzen du. Bere ustetan, gatazka, bakoitzak bere interesen alde egiten duten bi aurkariren arteko interakzioa da, baina aurkari horiek izango duten kooperaziorako ahalmenaren arabera lortuko dute adostasun batera heltzea. Hau horrela, gatazkak eta desadostasun horiek konpontzeko elkarbizitza egoki bat beharrezkoa izango da gizabanako bakoitzaren hazkuntzarako.

Askotan, eskola gatazka entzuterakoan indarkeria fisikoan oinarritutako gatazkei egiten zaie erreferentzia, baina gatazka egoeretan eta bizikidetzan eragina duten beste hainbat portaera antisozial ere suertatu daitezke eskolan; gelako etenaldiak, diziplina arazoak

(irakasle eta ikasle artean), ikaskideen arteko tratatu txarrak, kalte materialak, indarkeria fisikoa eta jazarpen sexuala, besteak beste (Aznar, Cáceres, eta Hinojo, 2007).

Gatazkak ez dira mota bakar batekoak, eta nahiz eta sailkapen desberdinak egon, parte hartzen duten pertsonen arabera sailkapenean lau kategoria desberdinetan bereizten dira (Aznar, Cáceres, eta Hinojo, 2007):

- Botere gatazkak: ikasle batek arauak hausten dituenean, sistemak ezarritako arau horiek bere "askatasunaren" aurka jokatzeko dutenean.
- Erlazio gatazkak: gatazkan sartuta dagoen subjektu bat, bestearen gainetik dagoenean, hierarkikoki edota emozionalki. Hauek bulliying edo jazarpen kasuak izaten dira batzuetan, berdinen arteko gatazkak izan ohi dira eta erlazioaren hierarkia eta boterea faktore psikologiko eta ingurugiroko faktoreek baldintzatzen dute.
- Errendimendu gatazkak: curriculum eta edukiakin lotutako gatazkak lirateke, non subjektuek zailtasun desberdinak dituzten.
- Gatazka interpertsonalak: esparru hezigarritik haratago dauden gatazkak lirateke, baina hezkuntza zentroan ematen dira batzuetan, eskola gizartean gertatzen denaren erreproduzio bat baita.

Gatazka mota identifikatuta, gatazka baten aurrean 3 erantzun jaso daitezke: pasiboa, oldarkorra eta asertiboa. Pertsonen arteko harreman ona eta elkarbizitza egoki bat izatea bada helburua, ezinbestekoa da edozein gatazkaren aurrean modu asertiboan jokatzeko. Jokabide hau edukitzeak zera esan nahi du, sentimenduak adierazten jakitea, ideiak askatasun osoz adierazten jakitea, zure ideiekin bat ez datorren zerbaitekiko azalpen edota iritzia agresibitate gabe ematen jakitea, norberak izan ditzakeen akatsak aitortzen jakitea, injustua iruditzen zaizuna alde batera utziz bestearen gaitasunak aitortzea eta askatasunez komenigarria iruditzen zaizun eskubide bati uko egiten jakitea (Aznar, Cáceres, eta Hinojo, 2007).

Hau horrela, ez dago zalantzarik hezkuntzaren munduan eta bereziki ikastetxeetan ezinbestekoa dela elkarbizitza gaiaren lanketa egitea. Lanketan hasi baino lehenago komenigarria izaten da irakasleen, gurasoen eta familien giroaren berri izatea, elkarbizitza eskola eremuan dagoen bizitza soziala, ikasgela barruan dagoen giroa, eta diziplina desberdinetan dauden gatazkak barne biltzen baititu. Tresna guzti hauek eskola giroa osatzen dute; hortaz, eskola giroa da aztertu behar den gure elkarrekin bizitzen jakiteko kompetentzia non kokatzen den jakin ahal izateko.

3.2. Giroa

Eskola-giroa kontzeptua psikologia sozialean pertsonen erakundearen testuinguruan duten portaera ulertzeko egiten duten ahaleginaren zati gisa sortzen da. Gizabanako batek eskola-sisteman dituen esperientzietatik abiatuta duen pertzepzioa eta sentsazioa da. Atxikitzeko ahalmenarekin (ikasleak eta irakasleak), gogobetetze-mailarekin eta hezkuntzaren kalitatearekin lotzen da, eta horrek hezkuntza-komunitatearen irakaskuntza eta ikaskuntza bultzatuko lituzke (Sandoval, 2014).

Ikastetxe batean bertako ezaugarri psikosozialek baldintzatuko dute eskola giroa. Beste batzuen artean, subjektuek eskola-testuinguruan (ikasgelan edo ikastetxean) ezartzen dituzten pertsonen arteko harremanei buruz duten pertzepzioa, eta elkarrekintza horiek zer testuinguru edo esparrutan gertatzen diren ere zehaztu dezake, era batean edo bestean (Sandoval, 2014).

UNESCOk (2000) ikasleek, eskola esperientzia emozionalki positibotzat jotzeko aukera, ikasleek eta irakasleek hezkuntza-testuinguruan sortzen duten giroaren arabera izango dela adierazi zuen, neurri handi batean behintzat. Horretarako, diziplina eskola-giroaren funtsezko osagaietako bat da. Diziplina, hezkuntza-komunitateko kide bakoitzari dagozkion rolak betetzean datza.

Eskola giroa ulermen-ardatzat hartu behar da, ez soilik jokabide-egitura baten ardatz bezala, baizik eta eskolak bere hezkuntza-mundua eratzen duen modutzat. Bere zentzumenei dagokienez eta kontzeptu hori eraikitzeko bost irizpide daude, aldi berean hura neurtzeko aukera ematen dutenak (Grisay, 1993):

- I. Ikasleen sentimendua arreta jasotzeko.
- II. Justizia eta zuzentasuneko ikasleen sentimendua.
- III. Gaitasuneko ikasleen sentimendua. (gaitua sentitzeko) eta gaitasunekoak.
- IV. Ikasleen harrotasun-sentimendua.
- V. Ikasleek beren eskolarekiko duten gogobetetze orokorraren sentimendua.

Eskola-giro positibo batean krisi-gertaerak errazago kudeatzen dira eta nahi ez diren erabakiak hartzeko arrisku gutxiago dute. Alde horretatik, irakasleen funtsezko zeregina ikasleei gatazkak indarkeriarik gabe konpontzen irakastea da, gatazkarik egongo ez delako ilusioa baztertuz, gatazka gizarte-funtzionamenduari baitagokio (Sandoval, 2014).

Aurrerago aipatu bezala, eskola-erakundearen hainbat eragile eta kidek hartzen dute parte. Hau horrela, komunitate edo erakundearen barruan bi mikroklima nagusi eta erabakigarri bereiz daitezke irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan: gelako giroa eta lan-giroa.

- Ikasgelako klima: garapen pertsonala errazten duen "gela-giroa" da ikasleek beren parekoen eta irakasleen laguntza eta elkartasuna jasotzen dutena, beren desberdintasun eta faltak errespetatzen dituztela sentitzen dutena, eta ikasturtearekin

eta eskolarekin identifikatzen dutena. Produktibitatearen atmosfera kooperatibo eta kezka-erantzun pertzepzio bat dute.

- Lan-klima: "Lan giroa" eskolako irakasleen eta beste langile batzuen eguneroko lana garatzen den giza inguruneari eta ingurune fisikoari dagokio.

Lan-giro egoki baten ondorio positiboetako bat eskola-bizikidetza harmoniko eta erlaxatua lortzen laguntzen duela da, irakasle motibatuak sortuz, lanarekin ongizatea sentituz, eta ikasle guztiei ikaskuntza-helburuak lortzen lagunduz (Sandoval, 2014).

Bai gelako giroan, lan giroan eta baita eskolako egitura positibo bat lortzerako bidean, hainbat aldagaik eragiten dute. Aldagai horiek domeinuetan sailkatu daitezke.

3.2.1. Eskola giroaren domeinuak

Eskola-giroa kontzeptua ez da adiera bakar bateko terminoa; dimentsio anitzak dituen konstruktua hori hobekien irudikatzen duten domeinuen inguruan ez baitago egileen arteko adostasunik (Cohen, McCabe, Michelli, eta Pickeral, 2009). Urteetan zehar, aldagai horren artikulazio ezberdinetatik datozen dimentsio ezberdin ugari neurtu dira (Maxwell, Reynolds, Lee, Subasic, eta Bromhead, 2017).

Aztertu diren domeinuak aniztasun ugariak izan arren, ikertzaileen artean eskola-giroa egituratzen duten lau arlo orokor daudela adostu da: segurtasuna, ingurumen- eta egitura-alderdiak edo kanpoko giroa, irakaskuntza-ikaskuntza eta erlazioak (Cohen, 2006; Cohen et al., 2009; Freiberg, 1999; National School Climate Center, 2014). Segidan, aurretik aipatutako domeinu bakoitza azaltzen da:

- Segurtasuna: arlo sozialean, emozionalean, intelektualean eta fisikoan seguru sentitzea gizakiaren funtsezko beharra da (Maslow, 1943). Dimentsio honetan hainbat alderdi jorratzen dira; pertsonak ikastetxean fisikoki eta emozionalki seguru sentitzea, arauak eskolako partaide guztiek argi jakinaraziak izatea eta errespetatzea eta ikasleak ikastetxeko gatazka kudeatu eta konpontzeko prestatzea, besteak beste (National School Climate Center, 2014).

Segurtasun fisikoan murgilduz, indarkeriari aurre egiteko eta pertsona guztiak ikastetxean fisikoki seguru sentitzeko plan argi bat izatea ezinbestekoa da; segurtasun sozio emozionala, berriz, ikasgelan gatazka konpontzeko irakaskuntzari eta jokabide erasotzaileak (bullying-a kasu), ikusteko eta jorratzeko moduari erreparatuko dioke (Thapa, Cohen, Guffey, eta Higgins, 2013).

Segurtasun fisiko, sozio emozionalak eta ikastetxea osatzen duten subjektu guztiek arau argi eta ezagun batzuk ezarrita izateak hainbat alderdi bultzatzen dituela egiaztatu da: garapen osasungarria (Devine eta Cohen, 2007; Gottfredson, Gottfredson, Payne, eta Gottfredson, 2005), eskola-jazarpeneko egoeretan ikasleak laguntza bilatzeko alde aurretiko jarrera ona (Eliot, Cornell, Gregory, eta

Fan, 2010; Gregory, Cornell, eta Fan, 2011), ikasleek ikasteko duten motibazioa (Goodenow eta Grady, 1993) eta, azken batean, errendimendu akademikoa (Sherblom, Marshall, eta Sherblom, 2006).

- Kanpoko giroa: ikastetxe baten ingurumen- eta egitura-alderdiak eskola-giroaren beste domeinu garrantzitsu bat dira. Domeinu honek ingurune fisikoaren alderdiak barne biltzen ditu, ikasgelen eta inguruen garbiketa, espazio eta material egokiak izatea edo curriculumaren eta curriculumetik kanpoko eskaintza erakargarriak, besteak beste (Cohen et al., 2009; National School Climate Center, 2014). Hainbat autorek adierazi dute ingurumen-aldagaiak, ikasgelaren diseinuak edo ikasgaien ordutegiek esate baterako, eragina izan dezaketela ikasleen segurtasun-portaeretan eta -sentimenduetan (Conroy eta Fox, 1994; Van Acker, Grant, eta Henry, 1996). Horrez gain, eskola-instalazioen kalitateak ere, ikasleen errendimendua, eskola-giroaren bitartez, eragina duela frogatu da (Uline eta Tschannen-Moran, 2008).
- Irakaskuntza eta ikaskuntza: eskola-giroko domeinu garrantzitsuenetako bat da (Thapa et al., 2013). Hainbat autorek diote, eskola-giro positiboak ikasleek ikasteko eta irakasleek irakasteko duten gaitasuna sustatzen duela (Finnan, Schnepel, eta Anderson, 2003; Ghaith, 2003; Kerr, Ireland, Lopes, Craig, eta Cleaver, 2004). Eremu honetan hainbat faktorek parte hartzen dute: irakaskuntzaren kalitateak eta sormenak, ikaskuntza sozialak, emozionalak eta etikoak; garapen profesionalak; eta lidergoak (Cohen et al., 2009; National School Climate Center, 2014).
- Erlazioak: ikaskuntza-irakaskuntza prozesua, funtsean, erlazionala da. Ikastetxea osatzen duten gizabanako ezberdinen artean ezartzen diren harremanek eskola-giroa baldintzatuko dute (Thapa et al., 2013). Ikastetxeko harremanen alderdi garrantzitsuenetako bat, pertsonen arteko konexioa nolakoa den eta konexio hori nola sentitzen duten izango da (Thapa et al., 2013). Domeinu honek hainbat alderdi hartzen ditu kontutan, aniztasunarekiko errespetua, morala eta konektibitatea, komunitatearen zentzua eta lankidetzeta, elkarrekiko babesa eta etengabeko komunikazioa, besteak beste (Cohen et al., 2009; Gregory eta Cornell, 2009).

Ikasleak inplikatzan dituzten harreman guztietatik, irakasleekin gertatzen dena izango da beren arrakasta akademikorako garrantzitsuena izango dena (Doll, Spies, Champion, Guerrero, Dooley, eta Turner, 2010; Whitlock, 2006). Izan ere, ikasleriak irakasleengan segurtasun emozionala aurkitzen du eta haien balioak barneratzen ditu. Horrek ikasleen

konpromisoa eta parte-hartzea zein portaera egokia sustatzen ditu (Gregory eta Cornell, 2009; Longobardi, Prino, Marengo, eta Settanni, 2016; Wang, Selman, Dishion, eta Stormshak, 2010).

Bestalde, ikastetxeko helduen (irakasleria, zuzendaritza-taldea, etab.) arteko harreman positiboak ezinbestekoak dira eskola-giro positiboa lortzeko (Austin eta Soeda, 2008).

Esan beharrik ez dago, berdinen arteko harreman positiboek, ikasleen parte-hartzea eta ikaskuntzarekiko interesa sustatzen dutela, haien ongizate psikologikoa hobetzen dute eta arrakasta akademikoa indartzen dute (Gregory eta Cornell, 2009; Jia, Way, Ling, Yoshikawa, Chen, Hughes, ... Ke, et al, 2009; Wang et al., 2010; Wentzel eta Watkins, 2002). Gainera, harreman horiek bereziki garrantzitsuak dira berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleen kasuan; izan ere, ikasle horiek eskola-giro positiboaz baliatu ahal izateko, gainerako ikasleek barne hartu eta errespetatu behar dituzte (Higgins-D 'Alessandro eta Sakwarawich, 2011).

Gela barruko berdinen arteko harremanetan, talde soziometriko desberdinak sortuko dira ikasgela barruan. Talde soziometrikoaren kontzeptua, gela bakoitzeko taldekatzeak egiteko erabilia izan ohi da eta tipologia soziometriko desberdina duten banakoek osatzen dute (García-Bacete, 2006).

Ikasgela batean aurkituko ditugun ikasleen ezaugarrien arabera mota soziometriko desberdinak egongo dira: ignoratua, subjektu hauek ikusezinak izango dira taldearentzat; gogokoena, taldeko subjekturik onartuenak izango dira, adierazpen honek zuzenean ikasle horiek ikaskideen gustukoena direla adierazten du; eta liderra, ordezkari hau, taldeko erabakien gaineko kontrola duen ikasle batengan pentsatzera gonbidatzen du (García-Bacete, 2006).

Era batean edo bestean, talde guztietan dago taldeko kontrola eramaten duen lider bat. Liderra formala edo informala, kanpotik ezarritakoa, aukeratutakoa edo eskatutakoa izan daiteke. Irakaslea askotan izan da lider izendatua modu batean edo bestean autoritate rol hori hartzen baitu, baina ikasleek eskolan duten inplikazioaren arabera rol hori aldatu daiteke.

Ikasgela bakoitzak bere barneko bizitza dauka, eta bertan erlazio sare desberdinak sortzen dira. Hasiera batean ikasleek taldean eragin ditzaketen moduak bilatzen saiatzen dira, denboraren poderioz eta negoziazioaren bitartez ikasleek kideen abantaila eta desabantailak aztertuz liderra izateko aukera desberdinak ebaluatuko dituzte, horrela liderra aukeratuz (Buccoliero, 2007).

Mota desberdinetako liderrak egon daitezke:

- Lider formala: Ikaskide edo irakasleak aukeratua izaten da gela ordezkatzeko. Instituzionalki begiraturik eskola eta irakasleen arteko bitartekari rola izan ohi du. Zereginetan adituak izaten dira.

- Lider informala: Karisma duten ikasleak izan ohi dira, taldearen erreferente bihurtuz eta taldearen dinamikan eragin zuzena izaten dute. Gelarekin identifikatua eta ekimenerako espiritua izateagatik bereizten dira. Harreman edo erlazioetan adituak izaten dira.
- Bully-lider: Beraien presentzia beste ikaskide bati erasotzen lortu nahi izaten dute. Gela barruan daukan papera tratu txarren inguruan sortutako isiltasunak zehazten du, egoera honetan taldeak egoera onartzera heldu daiteke.

Ikasle taldeak ikaskuntzari ematen dion balioaren arabera mota bateko edo besteko liderra egongo da.

Ikasgela barruan egon daitezkeen rol edo partaideak aztertu eta identifikatu ondoren, ezinbestekoa da ikasgelako kide guztiak ikaskuntza esanguratsu batera bideratzen jakitea eta horretarako gelako giro egoki bat izatea garrantzitsua da. Gelako giroa hobea eta eraginkorragoa izan dadin, jarraian aztertuko den Golden 5-eko programan hainbat baldintza proposatzen dira.

3.2.1. Gela giroa eraginkorragoa sortzeko baldintzak

Bizikidetza egoki bat lortzeko bidean klima sozialak berebiziko eragina izango du. Eskolara heltzean ikasleek espazio eta denbora jakin bat elkarbanatuko dute beren gelako beste ikasle guztiekin. Ez dira talde bat oraindik, baina talde izatera heldu daitezke. Gela behartuta egindako talde bat izanik eta instituzio baten barruan egonik eremu formalak izango da bertako kudeaketan nagusituko dena, hasiera batean behintzat.

Ikasturtearen hasieran talde izaera indartzeko edo elkar ezagutzeko hainbat eta hainbat jardura eta ekintza egiten dira, hortaz, egoera natural batean baino askoz ere azkarrago izaten da elkar ezagutzeko prozesua, ikasgelan elkartuko ez balira ikasle askoren arteko harremana ez lirateke sortu ere egingo.

Gelako harremanen eraikitzea bukatzen ez den prozesu bat litzateke, etengabe eraldatzen joan baitaiteke. Harreman hauetan gatazka eta arazoak sortzeko aukera handia egoten da, egin beharreko zereginaren inguruan desadostasunak daudenean, ikuspegi normatibotik testuingurua anbigua denean edota liderra aukeratzekoan akordiorik ez dagoenean.

Ikastetxeen zeregin formal nagusia ikaskuntza prozesuan laguntzea da, bai arlo akademikoan, eduki aldetik eta baita ikaskuntza pertsonalean ere. Baina, izan daiteke ikasleek ikastea, bigarren mailako helburu bat bezala ikusteak, beste arlo batzuk interesgarriagoak iruditzen zaizkielako, esate baterako, beste ikaskideekin erlazionatzea. Irakasleek ere helburu profesionalak diren helburuak ere izan ditzakete. Hau

horrela, arazo hauek sortu ez daitezzen edo ahal den heinean ekiditeko, komenigarria litzateke ikasle guztiek irakaslearekin batera helburu komun bat adostea, irakasleak ikasleekin hitz egiten eta ikasleek zer espero den azalduz, irakasleak erabiliko dituen estrategia desberdinak ikusi eta amankomuneko akordio batera helduz.

Helburuak zehazteaz gain, hauetara heltzeko arauak ere garrantzi handia dute. Eskolan, beste instituzio gehienetan bezala arau batzuk daude eta hauek egunerokotasunean bai elkarbizitzan bai ikaskuntza prozesuetan sortu daitezkeen arazoak ekiditeko helburuarekin sortzen dira. Gehienetan zuzendaritza taldetik edo irakasle taldetik bideratu eta egindako arauak dira. Ikastetxeetan funtzionamendurako denentzat beharrezkoak diren arau batzuk egotea ezinbestekoa da, baina norbanako bakoitza desberdina den bezala ikastetxe barruan dauden talde (gela) bakoitza desberdina da eta horregatik ikasgela bakoitzak hauek osatzen duten partaide guztien artean adostutako arauak egotea da egokiena. Arauak argia izan behar dira eta lehen esan bezala ikaskide guztien artean adostuak, ikasleak arau horiekin identifikatuta sentitu daitezzen eta beharrezkoa den momentuetan irakasleak erraz erabili ditzan, jakinda denek errespetatu eta arau horietan sinesten dituztela. Arauak sortzerako orduan, esaldia positiboa izatea kontuan hartu beharko da eta zer egin eta zer ekidin argi adieraztea; honek, ikasleen sentimenduetan eragin positiboa eta atentzioa bereganatuko du (Buccoliero, 2007).

Nahiz eta helburuak eta arauak izan, hauek nola adostuak eta erabakiak izan diren aztertzen bada, gelako orientazioa nolakoa izan dela jakin daiteke. Jarraian, ikas taldeko dinamikak nolakoan diren kontuan hartuta orientazioa nolakoa izan daitekeen aztertuko da.

3.2.1. Gelako orientazioa

Gelaren orientabidearen arabera, kolektiboa edo indibiduala izan daiteke, hau da, talde kohesioaren arabera balio, jarrera eta portaeren unibertsaltasunerantz edo indibidualak diren arauen garapenerantz bideratu daiteke ikaskuntza.

Dimentsio estrukturalen funtzioaren arabera beste hipotesi bat ere badago. Ikasleek fokua eskola instituzioak ezarritako helburuetan jartzen badute edo berdinen arteko sozializazioari garrantzi gehiago ematen badiote liderrak izango duen papera ere desberdina izango da.

Hortaz, bi aspektu hauek kontuan hartuta, gela orientazio indibidualista edo kolektiboa eta fokua zereginetan edo harremanetan, muturrekoak diren lau aukera jasotzen ditu Golden 5 programak egindako taula honek.

1. taula. Gelako orientazioa

		FOKUA	
		Taldeko zeregina eskolako zereginetara egokitzen da	Taldeak eskolak ezarritako helburua alde batera utzi eta berdinen arteko <u>harremanak</u> hartzen ditu
GELAKO ORIENTAZIOA	Kolektiboa	Taldeko denentzat garrantzitsua da liderrak daukan pertsonalitatea eta ikasi beharra dago. Ikaskuntza prozesuetan kooperazioa dago. Bullying egoerak erabat baztertuta daude.	Ikaskide edo irakasleak aukeratua izaten da gela ordezkatzeko. Instituzionalki begiraturaz eskola eta irakasleen arteko bitartekari rola izan ohi du. Zereginean adituak izaten dira.
	Indibidualista	Ikaskuntza prozesuan lehiakortasuna da nagusi, bullyinga ilegitimizatua egon daiteke. Biktima egoera horretarako balio ez duela sentituz laguntzarik gabe sentitzen da.	Karisma duten ikasleak izan ohi dira, taldearen erreferente bihurtuz eta taldearen dinamikan eragin zuzena izaten dute. Gelarekin identifikatua eta ekimenerako espiritua izateagatik bereizten dira. Harreman edo erlazioetan adituak izaten dira.

*Oharra: Golden 5 programatik moldatuta

Argi izan behar dugu gela bakoitza desberdina dela eta talde bakoitzaren oreka puntua ikasle taldeak aurkituko duela, talde kohesioa, sozializatzeko eta ikasteak ikasgelan duen pisuaren arabera (Buccoliero, 2007).

3.3. Gorputz Hezkuntzatik bizikidetza eta harremanak hobetzen

Curriculumeko konpetentzia sozial eta zibikoaren barruan kokatzen da bizikidetza, eta konpetentzia hori eskuratzeak berebiziko garrantzia du eskolaren elkarbizitzarako, pertsonak, beraien artean konektatzeko eta pertsonen arteko harremanetarako programatuta baitaude (Martínez eta Bujosa, 2014).

Asko dira curriculumeko arlo honetan Gorputz-hezkuntzak bere biziko garrantzia eta konpromisoa duela sinesten duten adituak, arloak konpetentzia sozial eta zibikoari hainbat ekarpen egin diezaiokela pentsatzen baitute. Gorputz Hezkuntzatik, eskola-bizitza gaituzten duten gatazken prebentzioari eta konpontzeko trebetasunak eskuratzeari eta gelako giro on bat sortzeari nola lagun dakiokkeen ikustean dago gako.

Gorputz Hezkuntza arloaren jolas- eta bizipen-izaeraren ondorioz, ikasleak erraztasun handiagoz adierazi eta errutina akademikoarekin hautsi egiten dute. Ekintza motorrek karga emozional handia dakarte, egoera horietan pertsonen arteko harremana eta komunikazioa etengabekoa izaten baita. Ezaugarri horiek direla eta, gorabehera, gatazkek eragiten dituzten egoerak ere gertatzen dira: ekintzen aurreko desadostasunak, trebetasun edo nortasun mailen arteko aldeak, kultura edo generoa, materialaren eta espazioaren erabilera, garaipenaren gehiegizko bilaketa, etab. Egoera horiek ikaslearentzat motibagarria den

ikuspegi batetik, gatazkak tratatzeko ingurune egoki bat bihurtzen dute Gorputz Hezkuntzako arloa (Martínez eta Bujosa, 2014).

Gorputz Hezkuntzak bizikidetzarako beharrezkoak diren estrategia eta prozesuak lotzeko bidean, bere gaitasun espezifikoak sustatuko ditu eta, aldi berean, oinarrizko gaitasunak lortzen lagunduko du, pertsonaren garapena bere osotasunean bilatzen duelako, alderdi motorrak, kognitiboak, eraginkorrak eta sozialak inplikatuz. Gainera, Gorputz Hezkuntza nagusiki gizarte- eta bizipen-eremu gisa planteatzen denez, non elkarrekintza ia inplizitua den, potentzial pedagogiko handia izango du gaitasun sozial eta zibikoaren esparruan (Martínez eta Bujosa, 2015).

Esan dezakegu Gorputz Hezkuntzak elkarrekin bizitzen ikasten, arauak egiten eta onartzen, norberaren autonomia garatzen, parte-hartzen, lankidetzan, desinhibizioan, lidergoan, gatazken konponketan, enpatia eta aniztasunaren balorazio eta errespetua lantzen laguntzen duela (Martínez eta Bujosa, 2015).

Gorputz Hezkuntzak Gaitasun sozial eta zibikoa lortzen laguntzen du, elkarrekin bizitzen eta gizarte-trebetasunak eskuratzen irakasten duelako, harremana, autonomia, integrazioa, errespetua, lankidetzaren eta elkartasuna erraztuz. Errealitatea kritikoki ulertzeko, ere balio du ikuspegi metodologiko onarekin eta edukien planteamendu egokiarekin esperientzia ezin hobeak eman bailitzake.

Ikasgaiko saioen ohiko garapenean ikasleak etengabeko harremanean daudenez, trebetasunak behar dira elkar ezagutzeko eta baloratzeko, adierazteko eta entzuteko, bestearen lekuan jartzeko, norberaren eta taldearen interesak erabakitzeko eta baloratzeko, eta desberdintasun pertsonalen eta eskubide kolektiboen berdintasunaren arteko dialektika ulertzeko. Horren ondorioz, Gorputz Hezkuntzak kompetentzia sozial eta zibikoen funtsezko elementuak garatzen dituen bitarteko integratzailea da. Errespetua, norberaren eta besteen aukeren onarpena, lankidetzaren garapena, berdintasuna eta talde-lana sustatzen dituelako, besteak beste (Martínez eta Bujosa, 2015).

Hala ere, Gorputz hezkuntzak kontrako jarrerak sortu ditzake. Gorputz-hezkuntzaren ezaugarrietako bat eraginkortasun motorra da, eta elitismoa eta hierarkizazioa nabarmentzen dira bertan. Elitismo hori, kirola bere eduki nagusia delako, gainerako edukietan kirolgintza-prozesua gauzatzen delako zehaztuta dago. Hau horrela, kiroltasun horren printzipio hegemonikoak finkatuta daude gaur egungo eskolako gorputz-hezkuntzan, eta horrek saioetan homogeneotasuna, arrazionalizazioa, lehia eta nagusi den maskulinitatearen transmisioa ekartzen du (Lacruz eta Mañero, 2018).

Gelako partaideen, irakasleen eta ikasleen, arteko harreman-estiloek, bazterketa eragiten duten praktikak ekartzen gerta daiteke, normalean kompetentziako edo errendimendu fisikoko jardueren bidez (Agudelo, 2013). Honek ikasleen arteko harremanetan gatazkak, desadostasuna eta bazterketak eragin ditzake.

Trebetasun motorren agertokiak ere, generoaren ikuspegitik desberdintasunak ekar ditzake, genero femeninoaren diskriminazioan, kirola baita diskriminazio hori indartzeko tresna nagusia. Bazterketa hori kirol eredu hegemonikoa eta genero eredu tradizionalak hausten direnean indargabetu daiteke (Lacruz eta Mañero, 2018).

Jolas eta jarduerak egiterakoan ikasleen gaitasun fisikoak bakarrik kontuan hartzen badira, jarduera baztertzailak bihurtuko dira, ikaslearen helburua, beraien artean lehiatzea izango da, irabazlea izango dela ziurtatzeko.

Jarduera mota hauetan irabazi edo galtzeak indar handia hartzen dute. Garaipena lortzeko helburuarekin, lehia jarrerak hartzen dituzte ikasleek, eta horrek tranpa, iseka, beldurra edo porrotaren gaitzespena bezalako adierazpenak sortu ohi ditu, formazioaren idealen aurkakoak diren jarrerak hain zuzen ere (Agudelo, 2013).

Hezkuntza-erakundeetan gauzatzen diren prozesuek eskolaren barruko homogeneizazioa bilatzen dute, eta horrek gizarteko gizabanako bakoitzaren benetako berezitasunak alde batera uzten ditu, baita talde batera sartu nahi duen ala ez erabakitzeko aukera ere eta gizabanako bakoitzak bere esentzia galtzea eragin dezake (Agudelo, 2013).

Hau horrela, argi dago Gorputz hezkuntza ikusteko eta irakasteko eraren arabera, mota bateko edo besteko Gorputz Hezkuntza emango dela, horrek ikasleen arteko harremanetan eragin zuzena izanik.

Horregatik, nahiz eta Devís eta Peirók (1993) eginiko ikerketan Gorputz Hezkuntzako kontestuan osasuna eta jarduera fisikoaren sustapenerako lau perspektiba azaltzen dituzten, (mekanizista, jarreretan oinarritutakoa, ezagutzetan oinarritutakoa eta perspektiba kritikoa) ikasleen arteko harremanak sustatu eta hauen lanketarako, jarreretan oinarritutako perspektiba kontutan hartzea litzateke egokiena.

Jarreretara bideratutako ikuspegiak gazteen heltze-prozesuan oinarritzen ditu curriculum-erabakiak, bai eta jarduera fisikoa egitera inplikatzeko direnean beren esperientziaz egiten duten pertzepzioan eta interpretazioan ere. Eskolako esperientziak positiboak izan behar dutela ziurtatu behar da, dibertigarriak eta ikasleentzat motibagarriak eginez. Gainera, ikasle eta irakasleen artean giro positibo bat egonez gero, ikasleen autoestimuan onurak ekarriko ditu eta baita hauek jarduera fisikoarekiko duen ikuspuntuan ere. Perspektiba honetan, garatu beharreko estrategia nagusia motibazioa izango da. Garrantzitsua izango da lehiakortasuna oinarri ez duten jarduerak burutzea eta garapen pertsonalari lekua uztea.

4. LANAREN HELBURUAK

4.1. Helburu orokorra

Lan honen helburua, gelako giroa aztertzen duen diagnostiko baten bitartez, Eibarren dagoen J. A. Mogel Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan dauden ikastetxe baten bizikidetza eta harremanak aztertzea da. Egon daitezkeen arazo posibleei konponbide bat eman eta bai gelako eta ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko helburuarekin, hobekuntzarako proposamenak luzatuz.

4.2. Helburu espezifikoak

Lanean zehar lortu nahiko liratekeen helburu espezifikoak honako hauek dira:

1. 5 eta 6.mailako 6 gelatako giroa behatu eta haren diagnostikoa egitea.
2. Diagnostikoaren inguruko datuak aztertzea eta gelen arteko aldaerak bereiztea.
3. Ikasleen arteko harremanak aztertzea: ikasgelako azpi taldeak identifikatzea, liderrak, gogokoena eta ignoratuak dauden identifikatzea.
4. Irakasleek gelako giroaren inguruan duten ikuspuntua aztertzea, eskola-bizikidetzaz eta gelako kideen arteko harremanen inguruan duten iritzia aztertuz.
5. Irakasleak eskola-bizikidetzak eta pertsonen arteko harremanek duten garrantziaz duten ikuspuntua ikusita, horren inguruko balorazioa egin eta hausnartzea.
6. Egoera azertu ondoren (irakasle eta ikasleen ikuspuntutik), beharrak non dauden identifikatzea.

5. METODOA

5.1. Parte-hartzaileak

Gradu Amaierako Lan hau, Lehen Hezkuntzako 2. zikloan dauden 5 eta 6. mailako ikasleekin egiten da. Zehatzago, Eibarko herrian kokatuta dagoen J. A. Mogel ikastolan garatzen da lan hau, bertan III .practicum-a burutu baita eta behaketaren bitartez eginiko haurren inguruko ezagutza baliagarria izan daiteke.

J.A Mogel ikastola, Eibarren kokatuta dagoen D ereduko ikastola publikoa da. Lehen Hezkuntza, Iturburu izeneko eraikinean dago, Mandiola Ballen, hain zuzen ere. 3 lerroko ikastola da eta gelen gehiengoan 24 ikasletik gora dago, beraz, ikasle ugari daude etengabeko harremanean. Aurretik aipatu bezala, 5 eta 6. mailako ikasleak izango dira aztergai, hortaz, 143 ikaslek parte hartzen duten lagina izango da.

Ikastetxe honetako ikasleen testuingurua aztertuz, duten maila sozio ekonomikoa ertaina dela esan genezake eta, orokorrean, euskal izaera duten ikasleak dira. Ikasle etorkinen kopurua baxua da, aztertutako 6 geletatik, 4 ikasle besterik ez baitira etorkinak edo etorkinen seme-alabak.

Irakasleak aztertuz gero, gela bakoitzean dauden tutoreek hartuko dute parte. Generoaren aldetik, 6 irakasleetatik 1 gizonezkoa da eta besteak, emakumezkoak. 6 irakasle horietatik, 3 ikastetxean finkoak dira eta urte asko daramatzate bertan; 2k, 2019ko oposaketetan plaza atera eta Iturburu ikastetxean dabilta praktiketan; eta azkena, berriz, urte osoko ordezkapen bat burutzen dago.

5.2. Tresnak

Eskola elkarbizitza neurtzeko erabilitako hainbat eta hainbat neurketa sistemaren artean, gaur egunean, ez da homogenea eta onargarria den neurketa sistemarik ezarri, ez baita globaltasun batean eta denentzako erabilgarriak diren, elkarbizitza osatzen duten faktoreak zeintzuk diren zehaztu, edota zerrendatu. Elkarbizitza, neurri handi batean, protagonista bakoitzak bere prozesuarekiko duen emaitza interpretatzeko pertzepzioa da, eta hau subjektibitatez beteta egoten da, subjektu bakoitzak bizi izandako esperientziak baldintzatu egiten baitu (Del Rey, Casas, eta Ortega-Ruiz, 2017).

Subjektibotasun hori dela eta, bizikidetzeta barruan dauden inklusioa, segregazioa, parte-hartzea eta subordinazioa bezalako kontzeptuak kontrajarri egiten dira, batzuetan kontraesanetan eroriz, eta honek neurketa prozesua zailtzen du. Hortaz, ezinbestekoa da fenomeno hau modu objektibo batean neurtuko duten neurketa tresna, baliabidea edota item-ak bilatzea. Bizikidetzaren inguruko neurketa egoki bat egiteak, laguntza ikaragarria ekarriko luke, bai bizikidetzaren oinarriak ezartzerako orduan eta baita esku-hartze espezifikoak egiteko orduan ere (Niebla, López, eta López., 2013).

Aznar, Cáceres eta Hinojok (2007) Eskolako indarkeriaren eta gatazken inguruan egindako azterketan, lagineko ikasle bakoitzari Aragon Jimenezen (1995) "klaseko klimaren" galdetegia eman zitzaion, zeina Andaluziako (Espainia) Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritzaren hezkuntza-ikerketako proiektu batetik abiatuta egin zen. Galdetegia zortzi item-ek osatzen dute (1.eranskina).

Lana aurrera ateratzeko, dagoen lagina hartuta, (143 ikasle) gelako giroa nolakoa den ikusteko diagnostiko bat egiten da, diagnostikoa egiteko, aurretik aipatutako item desberdinak dituen galdetegia (1.eranskina) pasatzen zaie gela bakoitzeko ikasleei.

Galdetegi horrekin batera, beste 3 galdera labur dituen galdetegi bat erabiliko da (1.eranskina), gela bakoitzeko soziogramak egiteko, horrela era bisualago batean gela nola kokatzen den ikusi ahal izango da. Gela bakoitzeko 3 soziograma egongo dira, galdera

bakoitzarekin soziograma bat, alegia. Soziograman ikasleak multzokatzeko, generoaren arabera bereizketa egingo da, argiago ikusteko emakumezkoak borobilak izango dira, eta gizonezkoak berriz karratu formarekin irudikatuko dira. Gainera, kolorearen intentsitate edo tonuaren arabera, ikasle bakoitzak gelan zer nolako presentzia duen ikusiko da, intentsitate handiko kolorea nabarmentzen diren ikasleena (liderra edo aukeratuena) eta intentsitate baxuagokoak baztertuago dauden ikasleena.

Morenoren (1954) aburuz, soziograma diagrama bat da, gizabanako bakoitzak taldearen barruan duen posizioa grafikoki aztertzea ahalbidetzen duen baliabide bat, hain zuzen ere, horrela, gizabanakoen artean ezarritako harreman guztiak ikus daitezke.

Diagnostikoarekin bukatzeko, eta osotasunean gelako giroa nolakoa den aztertu ahal izateko, irakasleen ikuspuntua jakin eta aztertzeko Internet bidez bete beharreko galdetegi bat pasatzen zaie (2. eranskina). Galdetegiak gelako giroaren, harremanen eta arauen inguruan sakontzeko aukera ematen du.

Datu guztiak bildu, aztertu eta ondorioak atera ondoren, dagoen egoera hobetzeko, proposamenak luzatuko dira.

5.3. Prozedura

Arestian aipatu bezala, lanaren helburua ikasle lagin bat hartuta, gelako giroaren diagnostiko bat egitea izango litzateke. Horretarako, lehenik eta behin, irakasleei asmo eta helburua azaldu zitzaion, lan egiteko eta proiektuari hasiera emateko aukera ziurtatzeko. Irakasleen eta ikastetxearen parte hartzea ziurtatu ondoren, diagnostikoaren lehen pausoak eman ziren.

Urtarrilaren 23a gelaz gela 1. eranskinean ikus daitekeen galdetegia pasatu zitzaion ikasle guztiei. Gelaka eta bakoitzak berea betetzeko eskatu zitzaion, ondokoari begiratu gabe eta zintzotasunez.

Ikasleen datuak bildu ondoren, irakasleen aldetik zer nolako ikuspuntua zuten ikusteko ikastolari mezu bat idatzi zitzaion, testuingurua azaldu eta, aztertutako ikasgeletako tutoreen helbide elektronikoak eskatzeko. Hau horrela, irakasle tutoreei galdetegi bat pasatu zitzaion, mezu elektroniko batean helburua azaldu eta plataforma digital batetik galdetegia bete zezaten (2. eranskina). Irakasleei galdetegia Apirilak 3an bidali zitzaion. Galdetegia test moduko galdera eta galdera laburrez osatutako galdetegi bat zen, zeinaren helburua gelako giroa, harremanak eta arauen inguruan irakasleek zuten ikuspuntua ikustea zen.

Diagnostikoa egin, datuak bildu, antolatu eta aztertu ondoren, jasotako ondorio horiekin egoera hobetzeko oinarritzko printzipio nagusi batzuk egin ziren, beharrak non dauden ikusi eta horiek asetzen ahalegintzeko helburuarekin. ikasturteko plangintza batean praktikara eramateko. Printzipioak Gorputz Hezkuntzako saioretara bideratuta izango lirateke, irakasgai

egokia baita talde kohesioa eta kooperazioaren bitartez lortu nahi liratekeen helburuak lortzeko.

6. EMAITZAK


Diagnostikoa egiteko bi ikuspuntu izan dira kontuan hartutakoak, alde batetik, ikaslearen ikuspuntua eta, bestetik, irakaslearena. Jarraian, bakoitzean lortutako datu eta emaitzak azalerauko dira.

6.1. Ikaslearen ikuspuntua

Ikaslearen ikuspuntua aztertuta, galdetegiko itemetan eta soziogramak sortzeko hiru galdera laburretan, datu desberdinak izan dira lortutakoak. Hurrengo lerroetan, galderaz galdera lortutako emaitzak aztertuko dira.

a) Galdetegia



Galdera-sortaren lehen itemean ikasleen artean borrokarik dagoen ala ez galdetzen da (1.irudia). Lortutako datuek marko teorikoko gatazkaren atalean argudiatu den gatazka-errealitatean barneratzen gaituzte, eta indarkeria fisikoan oinarritutako gatazkei egiten die erreferentzia. 5. mailan, 6. mailarekin alderatuz askoz ere gehiago dira beraien gelan borrokak daudela erantzun duten ikasleak: lagineko 5. mailako ikasleen %99 ak beraien ikasgelan borrokak daudela diote, 6. mailan berriz, %14 besterik ez dira borrokak daudela esaten duten ikasleak.



1.irudia. Gelako borrokak

Bigarren galdera (2. irudia) ikasleak bere gelan minduta sentitzen diren ikaskideak dauden edo haiekin sartzen diren jakiteko, duten iritziari buruzkoa da.



Oro har, lagin osoa aztertuz, baieztatu daiteke, 5. mailan, ikasleen %71 batek ikasgelan gaizki sentitzen diren ikaskideak daudela esaten dutela, beste batzuen "biktima" izateagatik.



2. irudia. Ikaskideen biktima izateagatik gaizki sentitzen diren ikaskideen presentzia.

Bestalde, 6. mailan ikasleen %10ek erantzun dute baiezkoa eta %90ak dio, ez dagoela egoera horretan dagoen ikaslerik. 2. irudian ikus daitekeen bezala erantzunen arteko aldea nabaria da.


Hirugarrenik, beste haurrak bakean uzten dituzten ikasleak dauden galdegin zaie (3. irudia).



3. irudia. Beste haurrak bakean uzten ez dituzten haurraren presentzia

Berrito ere, 5. mailako ikasle gehienek, uste dute beraien gelan "zenbait" ikaskidek enbarazu egiten dutela. Zehazki, 5. mailako ikasleen %77ak uste du ikasleren batek besteei enbarazu egiten diela eta, beraz, klasearen erritmoa eten egiten duela; %23k berriz, ezetz diote. 6. mailan aldiz, %32 besterik ez dira beste haurrak bakean uzten ez dituzten ikasleak daudela diotenak.

Galdetegiaren puntu honetatik aurrerako galderek ikasleen egoera desberdinen aurrean duten jarrerari egiten diete erreferentzia (4. irudia). Planteatutako hurrengo galderaren helburua, gelakideren bat triste egonez gero, zerbait egiten duten jakitea litzateke.



4. irudia. Gelakideren bat triste egonez gero zerbait egitearen baiezkoa edo ezezkoa


Oraingo honetan, bai 5. bai 6. mailakoen gehiengoak izan du jarrera positibo bat. Hala ere, bi mailen arteko aldeak jarraitzen du 6. mailakoen %100ak baiezkoa erantzun baitu eta 5. mailakoen %89ak.

Baiezkoa erantzun duten horietatik, zer egingo luketen galderari erantzunez, eduki analisi bat egin eta gero, ondorengo hau da aztertutakoa. Gehien errepikatu ziren ekintzak hauek izan ziren (5. irudia): berarengana joan, lagundu (58 pertsonak); animatu (36 pertsonak) zer gertatzen zaion galdetu (28 pertsonak).



5. irudia. gelakideren bat triste egonez gero, zer egin.

Gelakideren batek jolasten uzten ez dien egoeraren aurrean zer jarrera hartzen duten gehiago zehazte aldera, aukera anitzeko galdera luzatu zitzaion (6. irudia).





6. irudia. Gelakideren batek jolasten uzten ez duenean, ikasleek hartzen duten jarrera.

5. eta 6. mailako erantzunak alderatuz gero, orokorrean antzeko jarrera hartzen dutela ikus daiteke grafikoan. Gehiengoak beste zerbaitegitera joaten dela dio: 5. mailakoen artean erdia baino gehiagok, 40 ikaslek hain zuzen ere, aukeratu dute aukera hau; 6. mailan berriz, nahiz eta gehiengoa izan ez da horren nabaria izan %38ak (28 ikaslek) aukeratuz. Datu bitxia da, 5. galdera honetako, "berarekin borrokan hasten naiz" aukera, ikasle minimo batek bakarrik aukeratzea: 5. mailan %1a eta 6. mailan %3ak. Galdetegiko lehenengo itemeko galderarekin alderatzen badugu, ikusi daiteke, 5. mailako ikasleen %99ak adierazi duela beraien gelan borrokan daudela, hortaz, kontraesanen bat badago bertan.

Bestalde, "aurreko bat ere ez" aukeratu duten ikasleetatik hauek izan dira gehien errepikatu diren esaldiak:

- Gelakidearekin hitz egiten dut
- Gelakide horrekin berriz jolastuko ez dudala esaten diot
- Joateko eskatzen diot
- Berarekin haserretzen naiz

Seigarren item-eko galderan, gelan jarrera ona izatea zaila egiten zaien galdetzen zaie ikasleei (7. irudia). Gainera, erantzunaren arrazoiaren azterketa sakonago bat egiteko, erantzunaren zergatiaren inguruan galdetzen zaie (2. taula).



7. irudia. Gelan jarrera ona izatea zaila egiten zaien ikasleen aukeraketa

Item honetan, 5. mailako %91ari zaila egiten zaio gelan jarrera ona izatea, 6. mailan berriz, %4ari. Hortaz, esan daiteke gehiengoari (5. mailako %91 eta 6. mailako %96-ari) ez zaiola zaila egiten jarrera ona izatea.

Zergatiei dagokienez, ezetza erantzun duten gehiengo horretatik, bildu diren datuak honako hauek izan dira:



2. taula. Gelan jarrera ona izatea zaila egiten ez zaienaren zergatiak

EZ	5.MAILA	6.MAILA	GUZTIRA
Ez dakit	25%	17%	21%
Ondo portatzen naizelako	16%	20%	18%
Jarrera ona daukadalako	14%	19%	17%
Erraza egiten zait	23%	7%	15%
Besteak errespetatzen dakidalako	0%	14%	7%
Saiatzen naizelako	5%	4%	5%
Saioak entretenigarriak direlako/gustura nago	8%	3%	5%
Giro ona dagoelako	2%	6%	4%
Gurasoek esaten didatelako	3%	0%	2%
Lotsatia naizelako	0%	4%	2%
Taldekoekin ondo eramaten naizelako	3%	0%	2%
Zintzo egon behar naizelako	0%	4%	2%
Andereñoa haserretu nahi ez dudalako	0%	1%	1%
Andereñoa jatorra delako	2%	0%	1%
GUZTIRA	100%	100%	100%

Ikasleen gehiengoari, zaila egiten zaio gelan jarrera ona izatea erraza dela baieztapenaren zergatia identifikatzea, %21ak “ez dakit” idatzi baitu erantzunean. “Ez dakit” erantzunaz gain, “ondo portatzen naizelako”, “jarrera ona daukadalako” eta “erraza egiten zait” erantzunak izan dira gehien errepikatu direnak.

5. eta 6. mailen artean 9 ikasle izan dira baiezkora erantzun dutenak, eta horien zergatiak hauek izan dira: portaera ona ez daukadalako, batzuetan haserretu egiten naizelako, aulkiarekin jolasten ibiltzen naizelako, ez dudalako arreta asko jartzen, despistatu egiten naizelako, batzuetan urduri jartzen naizelako eta haserretu egiten naizelako.

Zazpigarren itemean gelako arauak errespetatzea zaila egiten zaien galdetzen da (8. Irudia).



7. irudia. Gelako arauak betetzea zaila egiten zaien ikasleen erantzuna

Grafikoan ikusten denez, ez zaie zaila egiten gelako arauak betetzea: 5. mailatik %89ri eta 6. mailatik, %96ri; 5. mailako %11ri eta 6.eko %4ri, berriz, bai.

Ikasleek ezetza erantzunaren zergatiak zeintzuk diren ezagutzeko informazioa 3. taulan dugu.


3. taula. Gelako arauak betetzea zaila egiten ez zaienaren zergatiak.

EZ	5.MAILA	6.MAILA	GUZTIRA
Errazak direlako	35%	28%	31%
Ez dakit	26%	28%	27%
Ohituta nagoelako	13%	8%	10%
Ondo portatzen naizelako	8%	9%	9%
Errespetatzen ditudalako	0%	10%	6%
Bete egin behar direlako	6%	3%	4%
Logikoak direlako	0%	6%	4%
Saiatzen naizelako	5%	4%	4%
Ondo dakizkidalako	5%	1%	3%
Garrantzitsuak direlako	0%	3%	1%
Arauak gu hobeto egoteko direlako	2%	0%	1%
GUZTIRA	100%	100%	100%

Portzentaia antzekoarekin, “errazak direlako” (%31) eta “ez dakit” (%27) erantzunak izan dira ikasleen artean gehien errepikatu direnak. “Ohituta nagoelako” eta “errespetatzen ditudalako” zergatiak ere, askotan izan dira errepikatuak.

Galderari “bai” erantzuna eman duten ikasleen zergatiak, hau da, arauak betetzea zaila egiten zaiela adierazi dutenenak, honako hauek izan dira: “Zailak egiten zaizkidalako”, “aulkiarekin jolasten egoten naizelako”, “mugitua naizelako”, “gaztelaniaz hitz egiten dudalako”, “eskua altxatu gabe hitz egiten dudalako”, “batzuetan gelakideak jotzen ditudalako” eta “batzuetan arauak gogoratzen ez ditudalako”.

Galdetegiaren azkenengo itemean bakarrik edo taldean lan egitea nahiago zuten galdetzen zaie ikasleei (9.irudia).



9. irudia. Taldean edo bakarrik lan egitea nahiago dutenaren erantzunak
 Nahiz eta, gehiengoak taldean lan egitea nahiago duen (5. mailatik %87ak, 6. mailatik %95ak), datuek, 5. mailakoen artean, bakarrik lan egitea nahiago duten ikasleen portzentaia handiagoa dela adierazten dute, 6. mailakoen aldean. Zehazki 5. mailako %13ak bakarrik lan egitea nahiago du eta 6. mailako %5 ak.

Datu analisi bat egin ondoren, taldean lan egitea nahiago duten ikasleen artean, gehien errepikatu diren bi zergatiak “elkar laguntzen dutelako” eta “ideiak partekatzen direlako” dela adierazi dute. Gehien errepikatzen direnetatik gutxien errepikatzen direnetera ordenatuz, aurretik aipatutako bi zergatiez gain honako hauek dira atera direnak: “hobeto pasatzen dugulako”, “hobeto lan egiten delako”, “jendarekin egotea gustatzen zaidalako”, “seguruago sentitzen naizelako”, “denok parte hartzen dugulako”, “gehiago ikasten delako”, “lanak azkarrago egiten direlako” eta “lana banatu daitekeelako”.


Ikaslearen galdetegiko datu kualitatiboak osotasunean, eranskinetan aurkitzen dira (3. eranskina).

b) Soziograma

Soziograma sortzeko egindako galderetan, lan egiteko, ikastolan jolasteko eta ikastolatik kanpo jolasteko aukeratuko lituzketen hiru gelakide aipatzea eskatzen zaie ikasleei. Ikasle bakoitzeko hiru galderen erantzuna guztiak islatu nahian, gela bakoitzeko hiru soziograma desberdin egin dira (4. eranskina).

Datuak aztertu ondoren, jarraian azaleratutako hauek izan dira bildutako daturik aipagarrienak.

Orokorrean, ikastolan jolasteko eta ikastolatik kanpo egoteko aukeratutako gelakideekin alderatuz, talde kohesioa nabarmen handitzen da lan egiteko aukeratu dituzten ikasleekin sortutako soziograman; 10. irudian aurkezten da honen adibide den gela baten emaitzak.




*Oharra: emakumezkoak ○ / gizonetzkoak □

10. irudia. 6.B gelako soziogramak


Gainera, generoaren arteko bereizketa garbia ageri da talde gehiengoetan, emakumezkoak borobilean eta gizonezkoak karratu bezala irudikatuta, argi ikus daiteke ikastolan jolasteko soziograman (10. irudia).

Alde batetik, soziograma hauetan liderrak antzeman daitezke (11. irudia), gehien aukeratuak izan diren ikasleak, alegia, kolorearen tonu ilunago batean eta erdigunean irudikatuta.




11. irudia. 6.C lan egiteko aukeratutako soziograma.

Bestetik, ignoratuak edo baztertuak diren ikasleak ere ageri dira (12. irudia), hauek, tonu argiena duten ikasleak lirateke eta bazter batean kokatuak: 5.C gelan lan egiteko aukeratutako ikaskideen artean, ikasle baten adibidea begi bistakoa da.



12. irudia. 5.C lan egiteko aukeratutako soziograma

Horrez gain, azpi taldeak nabariagoak dira talde batzuetan beste batzuetan baino (13. irudia). Esate baterako, 6.C gelan ikastolan jolasteko aukeratutako kideen artean hiru azpitalde nabari ageri dira, mutilez osatutako talde bat eta neskez osatutako bi talde, hain zuzen ere.



13. irudia. 6.C Ikastolan jolasteko aukeratutako soziograma


6.2. Irakaslearen ikuspuntua

Irakaslearen ikuspuntua aztertzeko egindako galdetegitik hainbat datu eskuratu dira. Lehenengo galderari erreparatuz, gelako giroaren inguruko definizio bat eskatu zitzaien,

kontzeptu honen inguruko balorazio bat egiteko. Termino abstraktu bezala definitzen du irakasle batek, “gelan sortzen den atmosferari deritzo eta bertan, elementu askok dute eragina: ikasle eta irakasleen ezaugarriak, harremanak, araudiak, besteak beste” (Irak. 1). “Guztiok elkar errespetatuz eta lasai, konfiantzan aritu daitekeen egoera” bezala azaltzen du beste irakasle batek (Irak. 2). “Gela barruan hautematen diren eta pertsonarengan eragina duten batuketa multzo bat” dela aipatzen du beste irakasle batek (Irak. 3). Beste batek aldiz zer den galderari erantzunez gelako giro ona egoteko ezaugarriak aipatu ditu “Errespetuz aritzea eta jarrera desegokien aurrean elkar barkatzeko erraztasuna dutenean egongo da igo ona (Irak. 4). Orokorrean, gelako giroan, “taldea osatzen duten pertsonen arteko hartu emanek, harremanek, elkarbizitzak, eta elkarlanak eragina” (Irak. 5) dutela diote, “Sentimendu eta emozioak adierazteko leku goxo bat izateak eta elkarbizitzan eta elkarlanean egoteak, gelako giro on bat izatea eragingo du” (Irak. 6).

Bigarren galderan (14. irudia) beraien gelako giroa egokia den galdetzen zaie, eta grafikoa ikus daitekeen bezala, irakasleen gehiengoa da, gelako giro egokia dagoela baieztatzen dutena, %83,3 a hain zuzen ere.


2. Zure gelako giroa egokia da?



14. irudia. Gelako giroaren egokitasuna

Hirugarren galderan (15. irudia), ikasgelan beste ikasle batzuk molestatzen zituzten ikasle edo ikasle talderik zegoen itaundu zitzairen, eta ezetz erantzun zutenak %83,3a izan ziren; %16,7ak, berriz, baietz erantzun zuten.


3. Ba al dago gela honetan, beste ikasle batzuk molestatzen dituzten ikasle talderen bat?



15. irudia. Beste ikasle batzuk molestatzen dituzten ikasle taldeen presentzia


Hurrengoan (16. irudia), ea ikaslearen formakuntza integrala errendimendu akademikoaren gaineratik zegoen izan zen galdera, eta honako hau izan zen emandako erantzuna.

4. Nire gelan, ikaslearen formakuntza integrala errendimendu akademikoaren gainetik dago?



16. irudia. Ikaslearen formakuntza integrala errendimendu akademikoaren gainetik Irakasleen %60ak ikastetxeko ikasleen arteko harremana ona dela dio (17. irudia), %20ak “batzuetan” erantzuna hautatu zuen, eta beste %20ak harremana ona ez dela adierazi du.


5. Ikastetxeko ikasleen arteko harremana ona al da?



17. irudia. Ikastetxeko ikasleen arteko harremana Irakasleen galdetegia erantzun dutenak, tutore diren 6 irakasleak izanik, % 20ak irakasle bakar bati egiten dio erreferentzia.


Irakasle eta ikasleen arteko harremana ona dela dioten irakasleak 5 dira (18. irudia), %83,3 hain zuzen ere. Eta irakasle bat izan da “batzuetan” erantzuna aukeratu duena. Gainera, aurreko galderan (Ikastetxeko ikasleen arteko harremana ona al da?) “batzuetan” erantzuna idatzi duen irakasle bera izan da, galdera honetan ere, “batzuetan” erantzuna aukeratu duena.

6. Irakasle eta ikasleen arteko harremana ona da?



18. irudia. Irakasle eta ikasleen arteko harremana Galdetegiko azken zatian arauen inguruan galdeketa sakonago bat egiteko helburuarekin, honen inguruko hainbat galdera plazaratzen dira. Irakasle guztiek gela barruan arauak dituztela diote (19. irudia).

7. Ikasgela barruan arauak daude?




19. irudia. Ikasgela barruan arauak

Arau horiek, bizikidetza egoki bat izateko mantendu beharreko, “elkarbizitarako ezinbesteko arauak lirateke, errespetua batik bat” (Irak. 4), “elkarbizitzan eta elkarlanean aritu eta gelan ondo sentitzeko” (Irak. 1), “denen artean eta kurtso hasieran adostutako ezinbesteko arauak” direla ihardetsi dute irakasleek (Irak. 3, 5 eta 6), zer nolako arauak diren galderaren aurrean, “gehienak adostuak eta denok gustura sentitzeko arauak” (Irak. 2).

Ikasleak ikasgelako arauak sortzen parte hartzen dutela dio irakaslearen gehiengoak, %83,3 hain zuzen ere; %16,7ak berriz, ikasleek batzuetan parte hartzen dutela diote (20. irudia).


9. Ikasleak ikasgelako arauak sortzen parte hartzen du?



20. irudia. Ikasgelako arauak sortzeko ikasleek duten parte hartzea

Ikasgelan adostutako arauak betetzen diren galdetzean 1etik 5 era neurtzeko eskatu zitzaizen eta datu hauek izan dira jasotakoak (21. irudia):


10. Ikasgelako arauak betetzen dira?



21.irudia. gelako arauen betetzea

Esanguratsua izan da arauak betetzen ez badira neurriren bat hartzen dela galdetzerakoan jasotako emaitzak (22. irudia), gehiengoak, neurriak batzuetan bakarrik hartzen direla adierazi baitute, nahiz eta gela guztietan arauak egon.

11. Arauak betetzen ez badira neurriren bat hartzen da?



22. irudia. Arau hausten aurrean neurriak hartzea

Hartutako neurrien artean, “hitz egin, etxerako oharra bidali, jolas orduan jolastu gabe gelditu” bezalako neurriak ezarriko lituzkete (Irak. 6). Beste batzuen artean “neurriak baino, horien inguruan hausnartu konpontzen saiatu” bezalako proposamenak agertu dira (Irak. 4), “Hausnartu eta gaizki egindakoa kide edo irakaslearen laguntzarekin konpontzea” aukera bezala ikusten du beste batek (Irak. 3). Beti neurri hezitzaileak hartzen saiatzen gara” dio beste irakasle batek (Irak. 1) eta “erreparazio positibo bat topatuz” (Irak. 2). “Arau batzuen neurriak aurretik adostuak dira, baina beste batzuk, neurriaren arabera momentuan adosten dira, ikaslearekin, irakasleekin edo zuzendaritza taldearekin” (Irak. 5).

6.3. Gelako giro on baten oinarrizko printzipioen proposamena

Datu jasoketa kontutan hartuta, egoera eta bizikidetza hobetuko luketen oinarrizko printzipio nagusiak honako hauek lirateke:

- Espazio egokia aukeratu.
- Denen artean gelako arauak adostu.
- Taldekatze egokiak egin.
- Talde kohesioa landu.
- Saioaren eta arazo posibleen inguruan hausnartu.

Printzipio hauek, ikasturteko plangintza batean praktikara eramatea litzateke aproposena.

7. ONDORIOAK

Ikerketaren fase honetan, helburu orokorra lortu da; gelako giroa aztertzen duen diagnostiko baten bitartez, Eibarren dagoen J. A. Mogel Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan dauden ikastetxe baten bizikidetza eta harremanak aztertu baitira. Gainera, hobekuntzarako proposamenak luzatu dira, bai gelako eta ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko helburuarekin.

Oro har, zehaztutako helburu espezifikoak betetzea lortu da. Hasierako behaketaren bitartez, aurretiko balorazio edo iritzi bat azaldu da, honek diagnostikoa egitera bultzatu du.

Egindako diagnostikoan galdetegietan lortutako datuak aztertu dira, ondoren, alderatu eta ondorioak atera ahal izateko. Soziogramatik ateratako datuak aztertuz, taldeak eta gelako partaide motak identifikatu dira.

Irakasleek betetako galdetegiko galderen erantzunak aztertuz irakasleek gelako giroaren inguruan duten ikuspuntua aztertzea eta baloratzea lortu da, bai emaitzen atalean eta baita ondorioetan ere.

Bestalde, beharrak non dauden identifikatzeko helburua zeharka landu dela esango nuke, nahiz eta gelako giroaren balorazioa egin, taldeko giroa eta kohesioa hobetzeko behar espezifikoak ez baitira azaldu.

Hau horrela, diagnostikoa egin ondoren hainbat dira atera daitezkeen ondorioak. Alde batetik, garbi ikusten da 5. eta 6. mailaren arteko desberdintasuna, 6. mailako gelako giroa hobe dela baieztatzen dute jasotako datuek, eta desberdintasun horiek taldeko kohesioa bezalako beste dimentsio batzuetan eragina du; ikasleen erantzunen artean kontraesanetan erortzen direla ikus daiteke, galdera desberdinetan eman dituzten erantzunak aztertuz gero, bateragarriak ez direla ikusten baita; gainera, irakasle eta ikasleek gelako harreman eta giroa ikusten duten modua ere desberdina dela ikusi da.

Arauetan sakontzen badugu, nahiz eta irakasleak bide onetik joan, gela guztietan arauak egon eta ikasleek hauen sorkuntzan parte hartu, arauen eta arauak betetzearen garrantzia plazaratu behar zaie ikasleei, arauak betetzen ez badira neurriak hartuz.

Ikaslearen galdetegiko emaitzen balorazioa sakonduz gero, hainbat dira atera daitezkeen ondorioak.

Galdetegiko lehenengo hiru galderetan, 5 eta 6. mailako ikasleen artean, desberdintasunak daudela agerian gelditzen da. Gelan borrokarik dagoen galderaren aurrean, 5. mailan, borrokak daudela baieztatzen dutenak gehiengoak dira, 6. mailan aldiz alderantzizkoa gertatzen da. Eskola garaian, pixkanaka haurren elkarrekintza sozialean euren arteko agresio fisikoa hitzezko agresioak ordezkatzeko joaten da (Howes, 1987). Egoera honetan, izan daiteke, 5. mailan oraindik fase hori gainditu gabe edukitzea. Beraiekin sartzen direlako gaizki sentitzen diren ikasleak dauden galdetzen zaien galderan ere baieztatzen da aurretik esandakoa.

Erantzunak aztertuz, hasiera batean eginiko behaketa bidezko balorazio subjektibo edo informala baieztatzen da, 5. mailako geletan giroa nahasiagoa da, gainera, gatazkak daudela ere berretsi daiteke.

Gatazken barruan, borroka edo indarkeria fisikoan oinarritutako gatazkei egin zitzaizen erreferentzia galdetegian, askotan gizartean egiten zaien bezala (Aznar, Cáceres, eta Hinojo, 2007), nahiz eta gatazka egoeretan beste hainbat portaera antisozial gertatu, hau baitzen gelako giroa ustez oztopatzen zuena.

Gatazka gizarte-funtzionamenduari dagokio, eta gela baten barruan, ezinbestean gertatuko dira gatazkak, baina borrokak ekiditen eta kudeatzen ikasi beharko dute ikasleek (Sandoval, 2014).

Gelakideren bat triste egonez gero zerbait egingo luketen galderatik jasotako erantzunak positiboki baloratzekoak dira, izan ere, bi mailatan gehiengoak zerbait egingo lukeela adierazi baitzuen. Oinarri teorikoa aztertzen badugu, jakin badakigu gatazkaren aurrean 3 erantzun posible egon daitezkeela erantzun pasiboa, oldarkorra eta asertiboa. Egoera honetan

asertiboki erantzun dute ikasleek (Aznar, Cáceres, eta Hinojo, 2007), erantzun asertiboaren barnean, zure ideiekin bat ez datorren zerbaitekiko azalpen edota iritzia agresibitate gabe ematen jakitea baitago, besteak beste.

Gelakideren batek jolasten uzten ez bazaitu zer jarrera hartzen duten galderaren aurrean erantzun antzekoak egon dira bi mailatan: 5. mailako ikasleetako ia inorrek ez du “berarekin borrokan hasten naiz” jarrera aukeratu, nahiz eta gehiengoak bere gelan borrokak daudela baieztatzen duen. Bi erantzun horiek aztertuz ikasleak kontraesanean erortzen direla esan daiteke.

Eta antzeko zerbait gertatzen da jarrera ona eta arauak errespetatzearen inguruan: bi mailatan gehiengoak dio ez zaiola arauak errespetatzea kostatzen, baina aldi berean, 5. mailan gelan borrokak daudela, gaizki sentitzen diren haurrak daudela, eta besteak bakean uzten ez dituzten haurrak daudela.

Moralaren garapenean, 10-11 urtetik aurrera, heteronomotik moral autonomora pasatzen da. Moral autonomoak garapen kognitiboa eta elkarrekintza soziala izango ditu osagai bezala; egozentrismoa gainditzearen, perspektiba desberdinak garatzearen, eta elkarren arteko adostasuna, eta adostasunez ezarritako arauak errespetatzearen moralak litzateke (Marchesi, Palacios, eta Coll, 2014). 5. mailako ikasle hauetan, izan daiteke, oraindik moral hau guztiz garatuta ez izatea, moralaren garapenaren bidean egonik. Gainera, Piagetek esan bezala, helduek haurren hedapen moralak atzeratu dezakete arauak inposatzerako orduan metodo autoritarioak erabiltzen badituzte. Ikasleak oraindik ere garapenaren bidean daude eta eskolan ematen diren elkarrekintzak aukera paregabea dira euren prozesuan aurrera egiteko.

Moralaren garapenaz gain, ikasleen kontraesanen atzean disonantzia kognitiboak daude. Festingerrek esan bezala, jendeak egiten duen eta sinistu edo pentsatzen duenaren artean desberdintasunak egon daitezke, eta horrek norberaren baitako informazioa modu desberdinean prozesatzea eragin dezake.

Kognizioa kontsonantea edo disonantea izan daiteke. Kognizioa disonantea izango da bata besteari jarraitzen ez dioten bi ideia daudenean edo bata bestearekiko kontraesanean erortzen denean, ikasleak kontraesanean erortzen diren egoera honetan kognizioa disonantea izango da. Kognizio disonanteek, gizabanakoa, kognizio bat edo biak aldatzen saiatuko den egoera bat sortzen dute. Hala ere, batzuetan zaila da kognizio bat aldatzea, esate baterako, jokabidea bezalako kognizio batzuen aldaketa zaila izan daiteke. Egoera honetan, gure jokabidea aldatu baino arrazionalizatu egiten dugu (Bernal, 1993).

Disonantzia kognitiboa, pertzepzio-mekanismo bat da, koherentziaren berreskurapenean oinarritutako motibazio-iturri bat izan daitekeena (Bernal, 1993). Pertsona baten pentsamenduen artean kontraesanak badaude, pertsonak, beraien pentsamenduak aldatzen ahaleginduko dira, bakoitzaren jarrera justifikatu eta beraien ekintzekin bat joan daitezten. Ikasleek badakite gelan arauak daudela eta arau horiek bete egin behar direla, hortaz,

betetzen direla erantzungo dute, beraien ekintzak jarrerekin bat joan daitezzen, nahiz eta horrela ez dela jakin, gezur errukarria deritzona. Ez denez oker egotea gustatzen, informazio berriaren asimilazioa mugatzeko joera egongo da.

Bestalde, gehiengoak taldean lan egitea nahiago du. Hori bai, bakarrik lan egin nahi duten ikasleak gehiago dira 5. mailan, 6. mailan baino, hain zuzen ere. Borrokak dauden, ikasleak gaizki sentitu diren eta bakean uzten ez dituzten ikasle gehiago dauden mailan.

Soziogramek eraikitako irudiak aztertuz gero, hainbat hipotesi atera daitezke: gela batzuetan gatazkak egon daitezkeela ondorioztatu dezakegu; erlazio-gatazkak egon daitezke liderrak agerikoak diren soziogrametan, 6.C gelako lan egiteko aukeratutako soziograman, hain zuzen ere, hierarkizatuta dauden erlazioak baitira; errendimendu-gatazkak ere sortuko dira, ikasleek curriculum eta edukiekiko zailtasun maila desberdina dutenean, lan egiteko aukeratutako ikaskideetatik sortutako soziogrametan ikus daitekeen bezala 5.B eta 6.C geletan, bereziki; eta, azkenik, ikasleek eskolan jolasteko aukeratutako ikaskideen galderatik sortutako soziogramek gatazka-interpertsonalak egon daitezkeela erakutsi diezagukete, generoaren aldetik esate baterako, orokorrean bereizketa nabaria baita esparru hezigarritik haratagoko eremuetan (Aznar, Cáceres, eta Hinojo, 2007).

Liderrei dagokienez, lider formala, zereginean aditua dena, identifikatzeko aukera dago, ikasleek lan egiteko aukeratu dituzten ikasleetatik gehien errepikatzen dena, alegia. Lider informala, berriz, ikastolan jolasteko edo ikastolatik kanpo egoteko gehien aukeratu duten ikaslea izango da, karisma duen ikaslea, alegia (Buccoliero, 2007).

Perspektiba desberdin batetik egoeraz aztertuz gero, konturatu gaitzke irakasleek garbi dutela, ikas komunitate guztiaren arteko harremanek eragin zuzena dutela gelako giroan, Sandoval-ek zioen bezala (2014), gainera, positiboak eta errespetuzkoak diren harremanak izango dira giro egoki bat ziurtatzen dutenak. Bestalde, Sandoval-ek (2014), gelako giroa, subjektuek eskola-testuinguruan (ikasgelan edo ikastetxean) ezartzen dituzten pertsonen arteko harremanei buruz duten pertzepzioari dagokiola berresten du, errespetuzko eta positiboak diren harremanak sortuz. Sandoval-ek (2014) plazaratutako ideia horren barneratuta ez daukatela esan daiteke, gelako giroa zer den galdetzerakoan behintzat, ez dute honen inguruan aipamenik izan. Irakasleen aldetik horren inguruko lanketa egitea komenigarria izango litzateke, beraz, ikasleei beraien jarreraren inguruko hausnarketara bideratuz.

Gelan arauak badaudela baieztatzen dute irakasle guztiek eta gehiengoek ikasleek arau horien sorkuntzan parte hartzen dutela diote, positiboki baloratzeko aspektuak direnak, adituek diotenaren ildotik, (Buccoliero, 2007).

Ikasleek arauak beti betetzen ez dituztela diote batzuk, normala dena, ikaslearen egoera sozial eta emozionalak eta baita gelako klima sozialak ere eragina izango baitu jarreraren eta ondorioz, arauak betetzean (Buccoliero, 2007). Irakasle gehienek, ordea, arauak betetzen ez

badira neurriak batzuetan bakarrik hartzen dituztela diote. Arauak egotea ezinbestekoa da, baina betetzen ez badira, ez bada ezer egiten, arau horiek beren balio eta eragina galtzen dute, ikasleek jakingo dutelako betetzen ez badituzte ez dela ezer gertatuko. Helburua ikasleek arau horietan sinestea izango litzateke. Horretarako, garrantzitsua izango da arauak positiboak eta argiak izatea, horrela, ikasleen atentzioa bereganatzea lortuko da eta sentimenduetan eragin positiboa izango du (Buccoliero, 2007).

Hau horrela, ikasleek arauak ez dituzte mehatxu edo betebeharrak bezala ikusi behar, baizik eta bizikidetzarako eta pertsonen arteko harremanak hobetoagoak izateko ezinbesteko bezala (Buccoliero, 2007).

Irakasle eta ikasleen ikuspuntuak alderatuz gero, desberdintasunak daudela ikusi daiteke. Irakasleek, orokorrean, ikasleek baino hobeto baloratzen dute beraien gelako giroa eta desberdintasun hau, bereziki, 5. mailan gertatzen da. Bertan, gelan borroka daudela eta beraienkin sartzeko direlako gaizki sentitzen diren ikasleak daudela baieztatzen dute ikasle gehienek, baina irakasleek, berriz, gelako giroa egokia dela esaten dute.

Beste desberdintasunetako bat, irakasle eta ikasleen galdetegietan egin zitzaizen galdera berdinean ikusi daiteke. Galderan, beraien gelan, ea beste haurrak bakean uzten ez dituzten edo molestatzen dituzten ikaslerik zegoen galdetu zitzaizen; 5. mailako ikasleen gehienek baieztatu erantzuna eman zuten, irakasleen gehienek aldiz ezetz adierazi zuten, nahiz eta irakasle batek baieztatu erantzuna eman. Honekin, irakasleen duten ikuspuntuak eta ikasleek gelarekiko duten sententzioak eta irudiak bat egiten ez duela ondorioztatu dezakegu, eta irakasleek arazoa ikusi edo identifikatu ez badute, zaila izango da gelako giroa hobetzeko egitea.

7.1. Gelako giroa hobetzeko proposamenak

Diagnostikoa egin eta ondorioak aterata, gelako giroa eta lan giroa egokia bermatzea ezinbestekoa dela ondorioztatu da, eta hobekuntza hori emate aldera, eskola giroa egituratzen duten lau domeinu orokorrak kontutan hartzean egongo da gakoa: segurtasuna, irakaskuntza-ikaskuntza, erlazio edo harremanak eta ingurumen egitura (Cohen, 2006; Cohen et al., 2009; Freiberg, 1999; National School Climate Center, 2014).

Harremanen domeinua lantzea oso garrantzitsua izango da, ikasleen arteko konexioak lantzeko eta baita lankidetzaren harremanak, babesa eta elkarren arteko komunikazioa (Cohen et al., 2009; Gregory, eta Cornell, 2009). Kanpoko giroak ere harremanak baldintzatuko ditu, instalazio desberdinetan harremanetarako era desberdinak ematen baitira. Hortaz, egokia izango litzateke, ikasleei segurtasuna emango dieten espazioak aukeratzea, estruktura gutxiak eta zabalik daudenak, patioa, kanpoko instalazioak edo zirkulazio librea, besteak beste.

Gelako giroaren lanketa egiteko, Gorputz Hezkuntzako irakasgaia oso aproposa litzateke, jolas- eta bizipen-izaera handia baitauka. Gorputz Hezkuntzako saioetan ikasleek adierazteko eta harremanak izateko erraztasun gehiago erakusten dute, testuinguru horretan, emozio gehiago eragiten dira eta ikaskideen arteko harreman eta komunikazioa etengabekoa da (Martínez eta Bujosa, 2015).

Ideala dirudien arren, saioak diseinatzerako orduan aurretik aipatutakoa bermatzen saiatu beharko da, Gorputz Hezkuntzak izan ditzakeen lehia eta maskulinitate hegemonikoa bezalako ezaugarrietan ez erortzeko (Lacruz eta Mañero, 2018). Bestalde, jarreretan oinarritutako paradigma erabili beharko litzateke, positiboak eta motibagarriak diren esperientziak sortuz, ikaslearen autoestiman ere onurak ekarriko baititu (Devís eta peiró, 1993).

Lanketa egiteko, eta saioak aurrera eraman ahal izateko, gelako partaide guztien artean arauak adostea ezinbestekoa izango da, arau horiekin identifikatuta sentitu eta horretan sinesteko. Arau argiak eta positiboak sortu beharko dira (Buccoliero, 2007). Ikaskide batek hitz egiterakoan, entzun eta errespetatu egingo dut, esate baterako.

Talde kohesioa lantzea ere garrantzitsua izango da. Horretarako, estrategia kooperatiboak erabiltzea komenigarria litzateke. Ikaskuntza kooperatiboan, ikasleek, lana elkarrekin egiten dutenean, besteen aurrerapena sustatzen eta errazten dute, elkarri lagunduz, eta taldeko kide guztien ikasteko ahaleginak piztuz.

Taldekatzeak talde handian edo txikiak izan daiteke, joko, jarduera edo erronkaren arabera aukeratuak, baina beti heterogeneoak. Ruiz Moreno-k (2010) Talde lanerako 5c-en printzipioa proposatzen du: "Complementariedad, coordinación, comunicación, confianza, compromiso". Printzipio hauek argi izateak kohesioan lagunduko baitigu.

Saioetan gatazkak ere sortu daitezke, baina positiboki ere baloratu daitezkeen alderdi bat izan daiteke, gatazkak ez baitira beti negatibotzat hartu behar. Vinyata-k (2005) zioen bezala, gatazka pertsonen arteko erlazioetan oinarria baita.

Ikasle batzuek izan dezaketen disonantzia kognitiboa hobetze aldera, egon daitezkeen arazo posibleen inguruan garaiz hitz egin eta aitortu beharra dago, onartu eta arazoaren inguruan hausnartuz. Ikasleek, beraien jarrerak justifikatu baino lehenago, horren inguruan pentsatu eta kontzientzia piztea lortu behar dute.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lana bukatu ondoren, hausnarketarako tarte bat egon da. Orokorrean, zehaztutako helburu akademikoak bete direla esan daiteke, helburu orokorra eta baita espezifikoak betetzea lortu baitira. Diagnostiko nahiko osatu bat izan dela esan daiteke, aztertze bi

ikuspuntua hartu baitira, gai desberdinen inguruko azterketa egin da eta bi ikasmailaren arteko konparaketa egin da.

Baina lanak mugak ere ditu eta, noski, hobekuntzak ere izan ditzake. Esate baterako, ikasle batzuentzat erantzuteko galderak pixka bat konplexuak izan daitezke, beraz, galdera zehatzagoak egin daitezke.

Bestalde, datuen tratamendu estatistikoa oinarritzat izan da eta benetan taldeen edota mailen artean diferentziak esanguratsuak diren edo ez baieztatzeko batz bestekoen diferentziak aztertzea egokiena izango litzateke, adibidez SPSS programaren bitartez egin daitekeena. Baina lanaren helburua ez zen ezta testuinguru honetatik baino haratago doazen ondorioak ateratzea, baizik eta testuinguru honen argazki bat egitea.

Irakasleen galdetegiari begira, hobekuntza bat planteatu zitekeen: irakasle bakoitzari bere gelako lider formala eta informala zein den galdetuz, ikasleen soziogrametan ateratako liderrekin alderatzeko komenigarria litzatekeelako. Lider formala, lan egiteko aukeratutako ikasleekin sortutako soziogramaren datuekin alderatuko litzateke eta lider informala, berriz, ikastolan jolastu edo ikastolatik kanpo egoteko aukeratutako ikasleen soziogramarekin.

Hainbat izan dira ikasgelan harremanak eta gelako giroa hobetzeko baliabide proposatutako printzipioak, baina hobetze aldera egokia litzateke proposamen edo esku hartze zehatzago bat diseinatu eta aurrera eramatea.

Aipatu beharra dago, zailtasunak izan direla irakasleen ikuspuntua gehiago aztertzeke, ideia galdetegia erantzun ondoren, asmoa eztabaida bat egitea baitzen, baina, egoera dela eta ez da posible izan.

Helburu pertsonalak ere bete direlako iritzia daukat, izan ere, nire ikaskuntza prozesuan aurrerapenak ikusi baititut, bereziki, datuak aztertu eta emaitzak plazaratzeko garaian, lehenago kontrolatzen ez nituen programak erabiltzen ikasiz, Excel-a eta yEd, alegia.

Horrelako diagnostikoak egitea oso aproposa da eta etorkizuneko irakasle bezala gelan aplikagarria baita, Lehen Hezkuntzan bereziki, irakasle bakoitzak bere klasearen ikuspuntu objektiboago bat izan dezan, taldekatzeak egiterako orduan edo gatazka edo arazoak identifikatzeko, esate baterako. Soziogrametan bereziki era bisualean oso ondo ikusten baita gelako harremanak nolakoak diren.

Esku hartze bat egiteko gogoarekin gelditu naiz. Badakit idealena, esku hartze bat aurrera eramane eta lanketa egin ondoren, berriz ere galdetegi bera pasatzea litzatekeela, bi diagnostikoak alderatu ahal izateko eta hobekuntzak non eman diren ikusteko. Baina hori lan luzeago bat izango litzateke.

9. BIBLIOGRAFIA

- Agudelo, J. E. B. (2013). Prácticas incluyentes y excluyentes en la clase de Educación Física. *Educación Física y Deporte*, 32(2), 1440.
- Aznar, I., Cáceres, M. P., & Hinojo, F. J. (2007). Estudio de la violencia y conflictividad escolar en las aulas de educación primaria a través de un cuestionario de clima de clase: el caso de las provincias de Córdoba y Granada (España). *REICE. Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 5(1), 164-177.
- Austin, J. L., eta Soeda, J. M. (2008). Fixed-time teacher attention to decrease off-task behaviors of typically developing third graders. *Journal of Applied Behavior Analysis*, 41(2), 279-283. doi: <https://doi.org/10.1901/jaba.2008.41-279>
- Bernal, A. O. (1993). Leon Festinger y la psicología social experimental: La teoría de la disonancia cognoscitiva 35 años después. *Psicothema*, 5(1), 185-199.
- Buccoliero, E. (2007). *Golden Áreas. Clima social*. 2019ko abenduaren 18an, webgune honetatik berreskuratua: <http://www.golden5.org>
- Cohen, J. (2006). Social, emotional, ethical, and academic education: Creating a climate for learning, participation in democracy, and well-being. *Harvard Educational Review*, 76(2), 201-237. doi: <http://dx.doi.org/10.17763/haer.76.2.j44854x1524644vn>
- Cohen, J., McCabe, E. M., Michelli, N. M., eta Pickeral, T. (2009). School climate: Research, policy, teacher education and practice. *Teachers College Record*, 111, 180-213.
- Conroy, M. A., eta Fox, J. J. (1994). Setting events and challenging behaviors in the classroom: Incorporating contextual factors into effective intervention plans. *Preventing School Failure*, 38(3), 29-34. doi: <https://doi.org/10.1080/1045988X.1994.9944311>
- Delors, J. (1996). *De la publicación: la educación encierra un tesoro (Libro)*. 1. Madril: Santillana
- Devine, J., eta Cohen, J. (2007). *Making your school safe: Strategies to protect children and promote learning*. New York, NY: Teachers College Press.
- Devís Devís, J., & Peiró Velert, C. (1993). La actividad física y la promoción de la salud en niños/as y jóvenes: la escuela y la educación física. *Revista de Psicología del Deporte*, 2(2), 0071-86.
- Del Rey, R., Casas, J. A., & Ortega-Ruiz, R. (2017). Desarrollo y validación de la Escala de Convivencia Escolar (ECE). *Universitas Psychologica*, 16(1), 275-285.
- Doll, B., Spies, R. A., Champion, A., Guerrero, C., Dooley, K., eta Turner, A. (2010). The ClassMaps Survey: A measure of students' perceptions of classroom characteristics. *Journal of Psychoeducational Assessment*, 28(4), 338-348. doi: <https://doi.org/10.1177/0734282910366839>

- Eliot, M., Cornell, D., Gregory, A., eta Fan, X. (2010). Supportive school climate and student willingness to seek help for bullying and threats of violence. *Journal of School Psychology, 48*(6), 533-553. doi: <https://doi.org/10.1016/j.jsp.2010.07.001>
- Finnan, C., Schnepel, K., eta Anderson, L. (2003). Powerful learning environments: The critical link between school and classroom cultures. *Journal of Education for Students Placed at Risk, 8*(4), 391-418. doi: https://doi.org/10.1207/S15327671ESPR0804_2
- Freiberg, H. J. (1999). *School climate: Measuring, improving and sustaining healthy learning environments*. Philadelphia: Falmer Press.
- García-Bacete, F. J. (2006). La identificación de los alumnos rechazados. Comparación de métodos sociométricos de nominaciones bidimensionales. *Infancia y Aprendizaje, 29*(4), 437-451.
- Ghaith, G. (2003). The relationship between forms of instruction, achievement and perceptions of classroom climate. *Educational Research, 45*, 83-93. doi: <https://doi.org/10.1080/0013188032000086145>
- Goodenow, C., eta Grady, K. E. (1993). The relationship of school belonging and friends' values to academic motivation among urban adolescent students. *The Journal of Experimental Education, 62*, 60-71. doi: <http://dx.doi.org/10.1080/00220973.1993.9943831>
- Gottfredson, G. D., Gottfredson, D. C., Payne, A. A., eta Gottfredson, N. C. (2005). School climate predictors of school disorder: Results from a national study of delinquency prevention in schools. *Journal of Research in Crime and Delinquency, 42*(4), 412-444. doi: <http://dx.doi.org/10.1177/0022427804271931>
- Grande, M. J. C. (2010). Convivencia escolar. Un estudio sobre buenas prácticas. *Revista de Paz y Conflictos, 3*, 154-169.
- Gregory, A., Cornell, D., eta Fan, X. (2011). The relationship of school structure and support to suspension rates for black and white high school students. *American Educational Research Journal, 48*(4), 904-934. doi: <https://doi.org/10.3102/0002831211398531>
- Grisay, A. (1994). Le fonctionnement des collèges et ses effets sur les élèves de sixième et de cinquième. *Les Dossiers d'Éducation et de la Formation, 32*.
- Higgins-D'Alessandro, A., eta Sakwarawich, A. (2011). *Congruency and determinants of teacher and student views of school culture*. Association for Moral Education urteko hitzaldian aurkeztutako papera, Nanjing, Txina.
- Howes, C. (1987). Social competence with peers in young children: Developmental sequences. *Developmental Review, 7*(3), 252-272.
- Jia, Y., Way, N., Ling, G., Yoshikawa, H., Chen, X., Hughes, D., ... Ke, X., et al. (2009). The influence of student perceptions of school climate on socioemotional and academic

- adjustment: A comparison of Chinese and American adolescents. *Child Development*, 80(5), 1514-1530. doi: <https://doi.org/10.1111/j.1467-8624.2009.01348.x>
- Kerr, D., Ireland, E., Lopes, J., Craig, R., eta Cleaver E. (2004). *Making citizenship real. Citizenship education longitudinal study second annual report. First longitudinal survey*. London: DfES.
- Labrador, C. (2003). La cultura de la paz, marco para la ciudadanía. *Revista de Educación*, 155-168.
- Lacruz, I. C., & Mañero, A. M. (2018). La ineficacia motriz en la educación física: perspectiva femenina. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (33), 81-84.
- Longobardi, C., Prino, L. E., Marengo, D., eta Settanni, M. (2016). Student-teacher relationships as a protective factor for school adjustment during the transition from middle to high school. *Frontiers in Psychology*, 7, 19-39. doi: <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2016.01988>
- Marchesi, Á., Palacios, J., & Coll, C. (2014). *Desarrollo psicológico y educación*. Alianza editorial. Madril.
- Martínez, N. M., & Bujosa, M. C. (2014). La educación física en la consecución de la competencia social y ciudadana. *Retos: Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (25), 180-185.
- Martínez, N. M., & Bujosa, M. C. (2015). Mejorar la competencia social y ciudadana: innovación desde Educación Física y tutoría. *RETOS. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (28), 256-262.
- Maslow, A. (1943). A theory of human motivation. *Psychological Review*, 50(4), 370-396. doi: <http://dx.doi.org/10.1037/h0054346>
- Maxwell, S., Reynolds, K. J., Lee, E., Subasic, E., eta Bromhead, D. (2017). The impact of school climate and school identification on academic achievement: Multilevel modeling with student and teacher data. *Frontiers in Psychology*, 8, 1-21. doi: <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2017.02069>
- Moreno J. L. (1954). *Fundamentos de la Sociometría*: Buenos Aires: Paidós.
- National School Climate Center. (2014). *School climate guidelines*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.schoolclimate.org/about/our-approach/guidelines>
- Niebla, J. C., López, C. D. D., & López, A. A. C. C. (2013). Aplicación de un procedimiento para la optimización de la medida de la convivencia escolar. *Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa*, 6(2), 137-145.
- Ruiz Moreno, M. C. (2010). *El trabajo en equipo: La colaboración en la educación*. Sevilla: Wanceulen.

- Sandoval Manríquez, M. (2014). Convivencia y clima escolar: claves de la gestión del conocimiento. *Última Década*, 22(41), 153-178.
- Sherblom, S. A., Marshall, J. C., eta Sherblom, J. C. (2006). The relationship between school climate and math and reading achievement. *Journal of Research in Character Education*, 4(2), 19-31.
- Thapa, A., Cohen, J., Guffey, S., eta Higgins-D'Alessandro, A. (2013). A review of school climate research. *Review of Educational Research*, 83(3), 357-385. doi: <http://dx.doi.org/10.3102/0034654313483907>
- Uline, C., eta Tschannen-Moran, M. (2008). The walls speak: The interplay of quality facilities, school climate, and student achievement. *Journal of Educational Administration*, 46, 55-73. doi: <https://doi.org/10.1108/09578230810849817>
- Van Acker, R., Grant, S. H., eta Henry, D. (1996). Teacher and student behavior as a function of risk for aggression. *Education and Treatment of Children*, 19(3), 316-334.
- Vinyamata, Eduard (2005). *Conflictología: curso de resolución de conflictos*. Bartzelona: Ariel.
- Wang, C., Berry, B., eta Swearer, S. M. (2013). The critical role of school climate in effective bullying prevention. *Theory into Practice*, 52(4), 296-302. doi: <https://doi.org/10.1080/00405841.2013.829735>
- Wentzel, K. R., eta Watkins, D. E. (2002). Peer relationships and collaborative learning as contexts for academic enablers. *School Psychology Review*, 31(3), 366-377.
- Whitlock, J. L. (2006). Youth perceptions of life in school: Contextual correlates of school connectedness in adolescence. *Applied Developmental Science*, 10, 13-29. doi: https://doi.org/10.1207/s1532480xads1001_2

10. Eranskinak

1. Eranskina. Ikasleen galdetegia

Irakurri arretaz galderak eta erantzun zintzotasunez.

1. Ba al dago borrokarik zure gelan? BAI / EZ
2. Ba al daude beraiekin sartzen direlako gaizki sentitzen diren ikasleak zure gelan? BAI / EZ
3. Ba al daude beste haurrak bakean uzten (molestatzen) ez dituzte ikasleak? BAI/ EZ
4. Zure gelakideren bat triste egonez gero, zerbait egingo zenuke? BAI/ EZ

Zer? _____

5. Zure gelakideren batek jolasten uzten ez badizu zer jarrera hartzen duzu?
 - a. Irakasleari esaten diot
 - b. berarekin borrokan hasten naiz
 - c. beste zerbait egitera joaten naiz
 - d. konformatu egiten naiz

e. _____

6. Zaila egiten zait gelan jarrera ona izatea? BAI / EZ

Zergatik? _____

7. Zaila egiten zait gelako arauak betetzea? BAI / EZ

Zergatik? _____

8. Zer nahiago duzu bakarrik edo taldean lan egitea?

Zergatik? _____

IZENA:

❖ Idatzi zurekin **lan egiteko** aukeratuko zenituen 3 gelakide.

-
-
-

❖ Idatzi zurekin **ikastolan jolasteko** aukeratuko zenituen 3 gelakide.

-
-
-

❖ Idatzi zurekin **ikastolatik kanpo egoteko** aukeratuko zenituen 3 gelakide.

-
-
-

2. Eranskina. Irakaslearen galdetegia

1. Zure ustez zer da gelako giroa?
2. Nire gelako giroa egokia al da? BAI / BATZUETAN / EZ
3. Ba al dago dela honetan, beste ikasle batzuk molestatzen dituzten ikasle talderen bat?
BAI / EZ
4. Nire gelan, ikaslearen formakuntza integrala errendimendu akademikoaren gainera dago?
BAI / Batzuetan / ez
5. Ikastetxeko ikasleen artean harremana ona al da? BAI / EZ / BATZUETAN
6. Irakasle eta ikasleen arteko harremana ona da? BAI / BATZUETAN / EZ
7. Ikasgela barruan arauak daude? BAI / EZ
8. Zer nolako arauak daude?
9. Ikasleak ikasgelako arauak sortzen parte hartzen du? BAI / BATZUETAN / EZ
10. Ikasgelako arauak betetzen dira? INOIZ / GUTXITAN / BATZUETAN / ASKOTAN / BETI
11. Arauak betetzen ez badira neurriren bat hartzen da? BAI / BATZUETAN / EZ
12. Neurriren bat hartuz gero, zer nolako neurriak hartzen dira?

Galdetegi hau, google formulariosen bitartez egingo zaie irakasleei. Hona hemen esteka:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLScA5L6_68JZ8p8oPAS6TmV5vfh7c7sNxiMwMr7AAF9rvcu9tQ/viewform

3. Eranskina. Ikaslearen galdetegiaren datu kuantitatiboak

5.MAILA

1. Borroak		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	69	99%
1.5.a	24	34%
1.5.B	22	31%
1.5.C	23	33%
Ez	1	1%
1.5.B	1	1%
Orokorrean guztira	70	100%

4. ikaskidea triste		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	62	89%
4.5.A	21	30%
4.5.B	22	31%
4.5.C	19	27%
Ez	8	11%
4.5.A	3	4%
4.5.B	1	1%
4.5.C	4	6%
Orokorrean guztira	70	100%

6. Jarrera		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	6	9%
6.5.A	2	3%
6.5.B	1	1%
6.5.C	3	4%
Ez	64	91%
6.5.A	22	31%
6.5.B	22	31%
6.5.C	20	29%
Orokorrean guztira	70	100%

2. Gaizki sentitutako ikasleak		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	50	71%
2.5.A	20	29%
2.5.B	20	29%
2.5.C	10	14%
Ez	20	29%
2.5.A	4	6%
2.5.B	3	4%
2.5.C	13	19%
Orokorrean guztira	70	100%

5. Jolasten ez utzi		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Berarekin borrokan hasten naiz	1	1%
5.5.A	1	1%
Beste zerbait	9	13%
5.5.A	3	4%
5.5.B	2	3%
5.5.C	4	6%
Beste zerbait egitera joaten naiz	40	57%
5.5.A	12	17%
5.5.B	16	23%
5.5.C	12	17%
Irakasleari esaten diot	14	20%
5.5.A	7	10%
5.5.B	1	1%
5.5.C	6	9%
Konformatu egiten naiz	6	9%
5.5.A	1	1%
5.5.B	4	6%
5.5.C	1	1%
Orokorrean guztira	70	100%

7. Arauak		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	8	11%
7.5.A	4	6%
7.5.B	2	3%
7.5.C	2	3%
Ez	62	89%
7.5.A	20	29%
7.5.B	21	30%
7.5.C	21	30%
Orokorrean guztira	70	100%

3. Molestatzen duten ikasleak		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	54	77%
3.5.A	17	24%
3.5.B	22	31%
3.5.C	15	21%
Ez	16	23%
3.5.A	7	10%
3.5.B	1	1%
3.5.C	8	11%
Orokorrean guztira	70	100%

8. Nola lan egin		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bakarrik	9	13%
8.5.A	2	3%
8.5.B	6	9%
8.5.C	1	1%
Taldean	61	87%
8.5.A	22	31%
8.5.B	17	24%
8.5.C	22	31%
Orokorrean guztira	70	100%

6.MAILA

1. Borroak		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	10	14%
1.6.A	2	3%
1.6.B	5	7%
1.6.C	3	4%
Ez	63	86%
1.6.A	22	30%
1.6.B	20	27%
1.6.C	21	29%
Orokorrean guztira	73	100%

4. ikaskidea triste		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	73	100%
4.6.A	24	33%
4.6.B	25	34%
4.6.C	24	33%
Orokorrean guztira	73	100%

6. Jarrera		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	3	4%
6.6.A	2	3%
6.6.C	1	1%
Ez	70	96%
6.6.A	22	30%
6.6.B	25	34%
6.6.C	23	32%
Orokorrean guztira	73	100%

2. Gaizki sentitutako ikasleak		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	7	10%
2.6.A	6	8%
2.6.C	1	1%
Ez	66	90%
2.6.A	18	25%
2.6.B	25	34%
2.6.C	23	32%
Orokorrean guztira	73	100%


5. Jolasten ez utzi		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Berarekin borrokan hasten naiz	2	3%
5.6.A	1	1%
5.6.C	1	1%
Beste zerbait	13	18%
5.6.A	5	7%
5.6.B	5	7%
5.6.C	3	4%
Beste zerbait egitera joaten naiz	28	38%
5.6.A	4	5%
5.6.B	13	18%
5.6.C	11	15%
Irakasleari esaten diot	25	34%
5.6.A	12	16%
5.6.B	4	5%
5.6.C	9	12%
Konformatu egiten naiz	5	7%
5.6.A	2	3%
5.6.B	3	4%
Orokorrean guztira	73	100%


7. Arauak		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	3	4%
7.6.B	2	3%
7.6.C	1	1%
Ez	70	96%
7.6.A	24	33%
7.6.B	23	32%
7.6.C	23	32%
Orokorrean guztira	73	100%

3. Molestatzen duten ikasleak		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bai	23	32%
3.6.A	7	10%
3.6.B	7	10%
3.6.C	9	12%
Ez	50	68%
3.6.A	17	23%
3.6.B	18	25%
3.6.C	15	21%
Orokorrean guztira	73	100%

8. Nola lan egin		
Etiketak	Balioak	Ehunekoak
Bakarrik	4	5%
8.6.A	2	3%
8.6.B	2	3%
Taldean	69	95%
8.6.A	22	30%
8.6.B	23	32%
8.6.C	24	33%
Orokorrean guztira	73	100%


4. Eranskina. Soziogramak






6.B


Lan egiteko



Ikastolan jolasteko




Ikastolatik kanpo egoteko




6.C

Lan egiteko



Ikastolan jolasteko



Ikastolatik kanpo egoteko

